


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
81n. ZENBAKIA
AZULEA
(ZUMENDIA)
1984

GABONILLA
(ABENDUA)



ONDARROA'KO ITXASO-BAZTERRA!
(Kaia)

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
81n. ZENBAKIA
AZULEA
(ZUMENDIA)
1984

GABONIA
(ABENDUA)



ONDARROA'KO ITXASO-BAZTERRA!
(Kaia)

BESTE EUSKALDUN EUN URTEKO BAT

Zein euskal alderdiko? Bizkaiko Orozkotarra. Dagoni-lla'ren 31'n eun urte bete ta ospatu ebazan bere familiagaz.

Illebete bat lenago bizkar aldeko galtsu-aulki baten luzaroan jesarrita dago.

Lauki urdin ta zurizko jantzia darabil; zapi ta amantal bat eta artillezko galtzerdi lodiak daroaz betiko amandre baten antzera. Txarto daki erderaz berba egiten eta itzelezko oroimena dauka.

Azaola'tar Erramone, da bere izena. Etxeko andra baten irudi itxura berbera. Irurogeta amar urteko alaba bi eta illoba eskonbako bategaz bizi da orozko'ko Arrueta baserrian.

* * *

Bere senarra il yakonetik beintzat etxeko ardurea daroia, aspertu barik bearrean ortuan, ogia egiten suetean, abereak gordeten ta beste baserriko arazozen arduraz.

Ez da iñoz geisorik egon ta osagilleagana eldu zala bein baten gogoratzen da. Illabete eun urte egin baiño lenagotxuago osasunak uts apur bat egin dautso. Jazoriko orrek, bere adiña dala-ta gorraren asikerea artu dau ta ibilteko eziña, bere garputzak ez dautso-la beti lez erantzunik egingo bildurtxua sartu yako.

Bere illoba batek diño: "aulkitik jaso ezin danetik nekegarri ikusten dau bere burua eta gu asita ta arduradunak gareanik siñestu ez duanez, bera bearrezkoa dala uste dau.

* * *

Erromana Arrugeta'tik kilometru bi urrunago dagon San Martin baserrian jaio zan, eta an bizi da ogeta bi urte-tik onantz, eta arrezkero ez dau izten Zubiaur domeketan era Mezea entzuten izan ezik, edo ta Bilbo'ra an eukan aizta bateri ikustaldiren bat egitera.

Bizkai'ko uriburura azkenengoz etorri zanetik ogetamar urte izango dira, baiña ondo daki berak egiñiko etxeko ogia beste aizteari eroatera joaten jakon gaur berton. Alameda San Mames'ko etxea aurkituko leukela.

Bultzi-treanean edo oñez joango zan berebil-autobusak itxasminduten dautsolago, tan berbatxurik bez aituten ez dauan oraingo asmakuntzak ikuskiña ta antzeakoak ez jakoz atsegin. Arrugeta'n gitxi lotu dira biziten, eta lotu diranak areri entzun neutsozan bertso polit bi. Bata Sabino Arana Goiriren Abestietan, 72'n orrialdean dator.

Eztenkari burutsua da.

Aor

Esan nora, Kepandon,
ire alabaea,
otseiña izateko
bialdu duan, bá

Errepika

¡Ai, Kepandon, Kepandon!
Eu diru zalea;
ilda be ibilliko az
beti diru-billa

Bestea txikitan Orozko-Ibarran neuk bañikiena. Onek teoloji aldetik okerreren bat eukin leike, ta euzkeraz ezta aiñ garbia.

Ona emen:

Aita San Antonio,
Urkiolakoa
Askoren biotzeko
Santu debotoa.

Askok egiten deutso
Aita San Antoniori
Egun batean joan
eta bestean etorri.
¡Eta zapatak urrutu!...
Aita San Antonio'k
barriak ingoitut!

Aita San Antonio
Bera dana lez
maitatu bear dogu
Jaungoikoa lez...

(Bertso ostein)

Esan dogunez etxekoak asi zirean amandrearen egin-tzak kontetan: "alderdikorik onena zan ogia egiteko; arpi-llea goruetan be onena, iñor baiño beargiñago. Orain lapi-kokoa zainduten dau, ezin baiño obeago soiñekoak toles-ten daki. Geldi egoteak amorrutxua emoten deutso. Sami-ñez dago jesarrita egotearren egun guztian.

Ez doa ori bere izakereaz. Orraitiño, ez dau galduten bere gogaldi oneko umore onik.

Isiltasunean dagoala bizlortzen da, eta irribarrez katuak uxatuteko balio deutson eskumakillagaz lurra jotén dau. Irurogei baiño urte baiño geiago daukiezan iru alaba deukoz, amar illoba ta 15 bir-illoba. Ilteko bildurrik ez dauko. Datorrenean diño-Jaungoikoagana pozik joango gara".

Letona'k

Aor:

EUSKEREA ETA ELEIZEA

KONDAIRAN

Lan ederra, zeatza eta ondo oiñarritua, azkenengo ZER onen zenbakian Rementeria'tar Jose Mari jaunak erdiko orrialdeetan agertu ebana. Guztiok dakigun lez aurtengo Bizkaierearen Astea, EUSKERAZALEAK eratuta, Eskolapioetan emon eban berbaldia idatzita agertzen dausku.

Kristiñau-Ikasbidea artzen dau oiñarritzat, baiña orretan Eleizeak izan dauan jokabidearen arlorik zabale-na argetzen da, Eleizearen zeregiñik beiñena izan be Jesus'en Barri Ona zabaltzea da-ta.

Lan irakurgarri orretan argi agertu dausku Rementeria adiskideak, Eleizea bere kondairan, Kalagurri'ko Gotzaiñakandik asita, euskerearen alde eta eskualde bakoitxean bertako euskerearen alde jarri dala.

Zergaitik ori? Barri bat emoteko, eta orrelantxe Barri Ona zabaltzeko, erriak ulertzen dauan eta errez ulertzen dauan izkerea erabilli b-ar dalako.

ETA GAUR

Naizta norkiak iñoz eragozpen izan, kondairan argi agertzen da jokabide ori, baiña gaur be ortik jokatzen ete dau Eleizeak?

Erantzuna emoteko jakingarri-iturri eder bat daukagu Bizkaika'n, iñoz izan ez dogun lako iturria. Len, izan be, erantzunak eta aginduak Eleizako Arduradun eta Gotzaiñenak ziran, baiña oraingoan erriak berak zer nai dauan jakiteko erea izan dogu. Orixe da laikoen aurrerapenaren ondoren bat. "Eleiz-Barrutiko Batzar Nagusiari buruz eritxi-batzea" daukagu gogoan. Ara zer diño in 3 zatian, ondorenak aterateko orduan: "Euskerea Batzar Nagusiko izkuntza bat izan bear da lanerako. Eleizbarrutiak eskubide au ziurtatu egin bear dau eta gure eleiz-alkarteak benetako elebitasunaren arloan aurrera egiteko bideak artu bear ditu. Taldeen eran-tzun oso geientsua da idazkiak bizkaieraz egiñak izatea".

ARAZOA NON DAGOAN

Iaimenak ori agertu arren, ekiñaldiak aurrera aterateko ordua etorten danean, ez da izaten erreza urtenbi-dea. Ez dagigun aitzu gure Bizkaian erdeldunak doguzela geienak eta alkar-izketa sortzerakoan geienak ezin dabela euskerarik egin, ez eta ulertu be. Zer egin?

Arazo larri ori ez dau eleizeak sortu, or dago begien aurrean. Eleiz-batzar askotan agertzen da nabarmen eta bero.

URTENBIDEA

Gauza bi bai naikoa argi agiri dirala: Euskaldunak euskera egin dagiela beti, eta euren esaldi orreik erdel-dunai azaldu besteren batek, naiz laburpena eginda, naiz itzez itz erderatuta. Orrelan luzatu egiten dala? Orre-lan da, baiña beste bide zuzenik ez da ikusten.

Eta euskaldun orreik besteen esaldiak erderaz entzun bear ete dabez? Ez eteun leiteke or be itzulpena egin bear, euskaldunak be ulertuko ez ba'lebe lez? Ori litzake zuzenena, baiña bear ba'da eziña.

Eta bigarr-n gauzea: Batzar orreitaak ateraten diran agiri guztiak elebitasuna bide dala atera. Ori bai. Eta agiri guztiak diñogunean GUZTIAK esar. gura dogu. Eta or itzultzaileentzat lan aundia izango da, itzultzai-leak bearko dira.

Labur esateko, ukatu-e,iñevo eskubide bi bete bear dir i: Euskaldunak euskeraz egin eta agiriak izkuntza bietan argitaratu.

OSINTXU'KO LOREA

Osiñetan lorarik politenak asten dira. Euskal-Erria'n ain eza-guna ez dana datorrit gogora: loto-lora. Nire ibiltaldietan, batez be mixiño-lanetan, mota askoko lotolorak ikusi ditut. India'ko ta Japon'go erlejiñoen jarraitzeentzat lora zoragarri onek esan-gura maitagarria dauka. Jainko ta jainkoeme-iduriak loto gañean (gure artean Ama Birjiñarenak eta Santuenarenak odeien edo munduaren irudien gañean lez) agertzen dira. Jainkoenganako maitasuna ta menpekotasuna erakusteko onelako esakunak erabilten dakie: "Zure loto-lorearen oñetan naukazu mirabe au".

Loto-lore euskalduna

Gure Euskal-Erri onetan, Gipuzkoa'ko Bergara-auzoan, Osintxu'n loto-lore lerden bat sortu zan 1913'ko Irailla'ren 7'an. Bateoan Regina izena emon eutsuen, geroago Karidadeko Mertzederien Lagundian Sor Isabel Lete eta Landa izenaz ezaguna goa izango zana.

Osintxu'ko Parrokian 1913'ko Irailla'ren 9'an bataiatu, Bergara'ko Santa Marina Parrokian 1920'ko Otsaillaren 20'an Sendotza Sakramentua artu, eta Azpeiti'ko Sebastian Donea'ren Parrokian amaika urtekin lenengo Jaunartze nagusia egin eban.

Gurasoen aldetik, aita (Prudencio Lete Oregi) Bergararra eban. 1918'ko Urrillaren 29'an urte aretan zabaldu zan gripe izugarriaren ondorioz il zan bere jaioterrian. Ama (Maria Landa Lete) Azpeitiarra zan. Gipuzkoa'ko Gaisoetxe baten ogeita iru urte emonaz, 1945'ko Urtarrilla'ren 9'an azkeneko arnasa emon eban. Biak euskaldunak eta kristiñau zintzoak, orduko gure famili geienak ziran lez.

Laster galdu zituan Regina'k bere gurasoak: eriotzaz bata, gaisotasunez bestea. Orregatik, Azpeiti'ko "Garmendia" base-rrira, senitartean bizitzera joan zan Regina gaztea. An iru urte emon zituan, bigarren amatzat artu eban izeko Maria Antonia'ren ardurapean.

Argazkietatik eta Regina ezagutu eben esanetatik neska zuri-gorria, eta sorbaldaraño jasten jakozan urre-kolorezko adatsagaz, itxura ederreko gaztea agertzen jaku.

Soiñez galanta ba-zan, ez gitxiago gogoz: odol-bizia, alaia, gartsua, jostaria, eta ziriña baita be. Bein baten, eskolatik etxera bialdu eben, an biurri-samar lez, buruausteak emoten ebazalako. Beste baten bere lagunekin arrika ekin eutsen Bergara-aldean ezin-ikusia zan andiki baten automobilari. Beste bein be izekoaren baratzetik frutia ostu eban, eta izekoak agirika egin eutsola-ko, Regina'k, erre-mindurik, Plaentxi'ko osabarengana iges egin eban. Gaztaroko gauzak!

Mojetxean

Olako gazteak erlijiosa on-onak biurtzeko eragozpena baiño egokitasuna agertzen dabela jakitea, gaurko neskei atsegin izan-go jakela esango neuke.

Ez da ba arritzekoa Regina'ren biotzean moja sartzeko naia sortu ba zan. Gaiñera, dirudianez, asmo ori beteteko ez eban burrukaldi gogorrik egin.

Karidadeko Mertzederien Aitzak Zumarraga'n dauken nobizi-etxean, 1929'ko Ekainilla'ren 7'an, sartu zan Regina. Lagundi au 1878'an Malaga'n, Katedraleko kanonigoa zan, eta orain aldarako bidean dagon, Juan Nepomuceno Zegri eta Moreno'k sortu eban.

Lengo oituraz, moja egin zanean, Regina'k izena aldatu egin eban, eta aurrerantzean Sor Isabel izenaz ezagutua izan zan. (Izan-aldaketa onetan Regina'k jaioterrian eukan aitzaren izena artu eban, eta geroago bere aizta Isabel moja egin zanean, Regina biurtu zan. Olako gauza bitxiak jazoten ziran lengo egune-tan).

Sor Isabel barriaren lenengo profesioa Zumarraga'n egin eban 1931'ko Urtarrilla'ren 2'an. Zortzi urte geroago, 1939'ko Urtarrilla'ren 7'an, Eibar'ko Zarren Bizitoki eta Bular-minduen Osategian, bizi guztirako ziñitzen profesioa burutu eban, ordu-rako bertan gaiso-zain zan bitartean.

Moja egitean ez eban alde batera laga Sor Isabel'ek Regina zanaren izakera alaitsua. Bere jokabide on-bera ta maitagarria, eta tolesbakoa mojetxean erakutsi eban Sor Isabel sartu-barriak. Barruko bizitzan Jaunari ta mojei serbitzeko borondate gartsua eukala ikusten zan, bere Mertzedeo jantzia lez fintasuna, biguntasuna ta zuritasuna gordeaz.

Madrid'en

Erlijiosa-eskintzak egin eta laster, Tablada'ko Gaiso-etxera bialdua izan zan Sor Isabel. An asi zan lagun-urkoaganako serbitzuan bere maitasuna zabaltzen, eta baita on-biderako erasoal-diak eta burrukak aurkitzen. Ain atseingarria ta zoragarria zan Sor Isabel bere artu-emonetan! Eta Madrid ez zan ain zuzen be Zumarraga.

Gure baserrietako kolore-gorridun neska uri andiko kolore-geen artean, begiak bereganatzeko lain izan zan. Gañera, Isabel'en jardun zabal eta zintzoak jendea lilluratuta lagaten eban. Berak geiegi oartu barik, inguru atan arimarako arriskuak sortu leikezan. Baiña, Isabel'ek, aingeru bat lez, gogo-burrukaldi orrei-tatik garbi urten eban.

Mojatxuak, pekaturik ezagutu ez eban Jesukristo ta Ama Birjiñaren irudiak lez, agertu bear gendukezala esango leuskue batzuk. Olako eritxia okerra dala beste barik erantzungo neuke. Ez dogu zetan guzur-bidetik ibilli.

Sor Isabel'ek utsak euki zituan, baiña apaltasunez, menpe-kotasunez, gogo-garbitasunez eta goi-maitasunez gaintu eba-zan, Lagundiko Nagusien laguntasunez, bere arima-zin-tzotasuna kontuan artu ebalako.

Arduradunak ez ekien baiña, egun txarrak etorriko ziran las-ter, ai zuzen be Tablada'tik Madrid'era bertara, an Karidadeko Mertzederiak zuzentzen eben Abadeentzako Gaisotegira Sor Isabel eroan ebenean.

Gerratean

España'k 1936'ko urtean gerra madarikatu baten sortzea ikusi eban. Atzetik eta ondorioz ainbeste odol, izerdi ta negar erne zituan gukaketa zitalean, Sor Isabel'ek bereak eta bi jasan bearko ebazan. Erlijiosa-jantzia erantzi, andereñoarena jantzi, *permanentez* ulea dotoretu, etxerik etxe ibilli, zer eta nun jateko-rik ezin aurkitu, giltzaperera joateko bildurra, eta azkenez eriotzari agiñak ikusi... ez zan ez egoera nasaia moja gazte batentzat.

Ainbeste jazoera basatiren artean, ekaitz illun bat uxatzen dauan eguzki dizdiratsua agertzen dan lez, Madrid'eko "Refugio Vasco" eritxon babes-etxeak zabaldu zituan bere ateak edonungo eta edozelako euskoak, erlijiosak eta eleizgizonak batez be, barruan gordetzeko. Edo ori egin ezin ba'litzan, "*salvoconducto*"ak esku zabalez eskiñiaz.

Txaloak baiño zeozer geiago merezi dabez ainbeste laguntza eskiñi eben Euskal-Erri Amaren seme abertzale ta gizon kristiñau areik. Zoritzarrez, Euskal-Erriaren bertan eta kanpoko bazterretan Jaungoiko-zale ta Eleiz-babesle izan ziran gizon jator orreik geroago portu txarra eroan ebela gogoratuaz, negarmalkoak datorkidaz begietara. Baiña Sor Isabel bat zaindu ebelako biotza goratzen jat. Eskerrak, Jaun bedeinkatua!

Azkenengo urteak

1937'ko Urrilla'n Madrid'etik urteteko baimena emon eutsen Sor Isabel'i, eta barriro Zumarraga'ra biurtu zan. Sei urte aurrerago emendik urtenda gero, orain barriro nobizi-etxean bere burua ikusiaz eta bitartean jazo ziranak gogoratuaz, negarri emon eutson, Jaungoikoaren eragiñari oso-osoz erantzun ez eutsalako bere ustez.

Ordutik aurrera, azkenengo lau urtietan, iñungo zalantza barik, biotz zabalez santutasunaren elburura eskeintza gurenez eta karidade-martiritzaren eriotzara igotea erabagi eban. Isabel'ek esaten eban lez: "Bizi nazen artean, nire leiotik egan ikusten dodazan enarak lez bizi nai neuke; goi-gora egan egin nai neuke, lurrean geratu barik". "Santa izan nai dot, nai karu nai maru".

Asmo onegaz gaiso-zain egoan Eibar'ko Zarren Egoitzan ta Bular-mindudunen Gaisotegian, 1939'ko Urtarrilla'ren 2'an egin zituan betiko eskeintzak, bateoko ta lenengo profesioñoak barriztuaz, eta ain maite eban Lisieux'ko Teresatxu'ren "Gogozko Umearo ta Bidexka"ri jarraitzeko erabagi sendoa artu eban.

Ille bi geroago, len alde guztitik osasuntsu agertzen zan Sor Isabel, eriotzara eroango eban bularretako gaixotasunean jausi zan.

Gaxo-zaintzalle lez, ba-ekian zer esan nai eban gatx orrek. Orregaitik bere komunidadeko mojei onela berba egin eutsen: "Jesus'ek nire eskintza onartu daula uste dot".

Abuztua'ren 18'an gaisotegian egin eutsoezan azterketak egiaztatu eben orduan bildurgarritzko ta osatze-gabeko "bacilo de Koch" deritxona bularretan euskala.

Eriotzaraiño samin ikaragarriak jasan zituan. Era berean Jesus'enganako maitasun eten-bakoaren eta goi-maitasunaren testigu aparteko lez agertu zan Sor Isabel. Garbitokiko oiñazeak lurrean igaroz, emendik Aitaren besoetara zuzen-zuzen joateko ta Jaunagaz aurkituteko uste osoz emon ebazan bere azkenengo urteak.

Eibar'en bertan il zan 1941'ko Urrilla'ren 13'an, santutasunaren usaiñean, testigu guztien ustez. Bere gorpua lenengo Eibar'ko kanposantuan illobiratu izan zan. Gero, 1972'ko urtean Zumarraga'ko Probintzi-etxera ekarri eben.

Laster, 1945'an, Sor Isabel ezagutu ebenen eskariei erantzunaz, lenengo bizikondaira agertu zan, "El Triunfo del Amor" izenagaz. "La Alegria de una Entrega" izan zan bigarrena, 1969'ko urtean.

Santutasuna

Sor Isabel aldadara eroateko bear diran urratsak emotea Erroma'ko ta Donosti'ko Eleiz Agintarien eskuetan jarrita dago. Ez dago esan bearrik, euren erabagiei oztoporik ipinteko asmorik ez dogula, azken baten eurak diralako berba egin bear dabenak. Bitartean santutasunaz ornitua dagoala Sor Isabel esaten dogunean, jende-artean erabiltzen dan eran artzen dogu. Bera ezagutu eben mojak, abadeak seglarrak santatzat euki eben Sor Isabel. Ona emen zergaitik:

— Sor Isabel'en Jaungoikoaganako uste ta uzte osogaitik.

— Lagun-urkoaren alde, batez be beartsuenen alde (umeen, gaxoen, zarren alde) egin eban eskintza bete ta ongi-nai osoagaitik.

— Neurribako karidadeagaitik. Bere buruaz azturik, besteak bakarrik gogoan artu ebazan samin andien eta arima-illuntasun ikaragarriaren artean.

— Jaungoikoaganako maitasunean eta errukian egundoko itxaropenagaitik. Jaungoikoak berari eutson maitasunagaitik zerura zuzen-zuzen joango zala itxaroten eban.

— Sinismen sakonagaitik eta Jesukristoganako maitasun kutun eta barnekoagaitik.

Ia Euskal Erriak egunen baten, Osintxu'ko lora zoragarri au, Isabel Lete eta Landa, Santu izenagaz aldaretan gurtu al izaten dauan. Ala biz.

Zubikara'tar Joseba

TRIGO'REN GUZURRAK

Gizaseme asko guzurzaleak dira. Beste gizaseme askok errez siñesten dabe entzun daben guztia. Beraz, arexek beti dabiltz istoriak asmatzen, aurkitzen dabe beti entzule siñiskorren bat eta.

Nor da guzurtia? Istoriak asmatzen dituen? Orduan, guzurti batzuk ba dagoz.

Benetako istori bat entzunda gero, geitzen edo laburtzen, edo apur bat aldatzen dauana? Orduan, ia gizaseme guztiok guzurtiak gara. Onelan uste ezbadazu, irakurle maite ori, zoaz uri batera. Uri guztietan guzurplaza, guzur-etxe edo "mentidero"ren bat erderaz, egon dago. Bertan, jazoriko bat ikusi ba dozu, urte bat edo biren burruan, jazoritako bera zearo aldatuta entzungo dozu. Zeuk itanduko dautsozu zeure buruari: "Oredituta ala zoratuta eta nengoan ikusi nebanean?"

Trigo leeneko muetakoa zan. Berberak asmatzen eban istoria osoa. Mariñel izana zan eta neure aitaren tabernan edesten ebazan onelako istoriak.

* * *

Beiñola sartaldeko Aprika'n lurreratu ziran. Kairik ez egoan. Itxasontzia itzi eben lekutik uriraiño, ondartzaz luze ta zabal bat zan. Gabaz, berandu-berandu itxasontzira biurtzen ziranetan, trosko bateri soster egiten eutseen euren oñak. Ondarrez estalita, lo egiten eben baltzak.

—"Oo, spanish" —baltz gizajoak errukia eskatzen eban,

—"Spanish ni hostias" —Zan Trigo'ren eta baste mariñelen erantzun gogorra.

Eta mariñel-aiztoagaz, barea balitzan lez, ondarrean untzatu eben baltz gizajoa.

"Baiña gau askotan gogaitu giñan. Itxasontziraiño elduartean, berreun edo il bear izan genduzan", amaitu eban Trigo'k.

* * *

Beste baten, onela edestu eban:

Itxasontzietan mariñel petral batzuk beti izaten dira. Gurean onetariko bat zanean, Kapitanak kiñu bat egiten eustan. Neuk mariñel beragana jo ta...

—Boy, nigaz galdaratara!

Ara eldutean.

—Bota egizu ikatza —aginduten neutson galdara bateko atea zabaltzen lagundurik.

Ikatza botazen ari zala, neuk, sama ta praktetik oratuta, galdara barruan sartu neban. Atea itxita gero, an amaitu zan mariñel petrala!

* * *

Englis bidazle bat nere aitaren tabernara eldu zan. Ba-ekian ondo españolez. Barre egiteko, au asmatu eban nire aitak.

Taberna beratan, egoan Trigo beti legez. Prantsez, Inglesez eta onelako berbaera arrotzez egin al ebala, sarritan esan izan eban berak (Trigok).

—Gizon bat da emen, ingelesez egiten dakiena —Esan eutsen inglesai nire aitak.

—Pozik egingo dogu berba beragaz —erantzun eben inglesak.

—Trigo, mesedez, etorri ona —eskatu eutson nire aitak—. Jaun au, inglis da, ta zugaz inglisez egin gura dau.

—Do you speak English? —itandu eutson bidazleak.

—Yes —Trigo'ren erantzuna.

—I would like to speak with you.

—Yes, zenkis mekis beri guel —jarraitu Trigo'k itzal-itzal.

—But I don't understand you —iñoan arriturik inglesak.

—Zenkis mekis —eragoion Trigo'k ixildu barik, buruari ta eskuai zirkin eragiten eutsen artean.

—Parkatu jauna —zirautsan inglisek nire aitari— ez dot ulertzen jaun onek esan, gura dauana.

Nire aitak barreak ezin ebazan gorde.

—Berberak beti esaten deusku ingelesez dakiala —nere aitak bere burua zuritzen, eta Trigo'ri/ bai ala ez, Nikolas?

—Yes, zenkis mekis beri guel...

* * *

Ona emen bere guzurreen beste ale bat:

Zuek ez dakizue ekuadorra zer dan. Ekuadorra lurreko gorengo lekua da. Oso illargi-ondoan dago.

Gau baten ilbetea zan. Ta gau beratan gu igaroten giñan ekuadorretik. “Au da nereaa” —esan neban nere kautan.

Masta nagusira igon eta zain egon nintzan. Illargipetik igarotean, jaso neban besoa ta atzamarrakaz ikutu neutson illargiari. Goizean bertan atzazalak moztu ezpa-neuz, oratu izango neutson.

* * *

Baiña bere guzurrik biribillena, asmatu-ko Aita Santuari ikustaldiaren istoria zan:

A da jauregien edertasuna! Batikanoa! —asten zan.

An aitasatuen zaiñak egozan. Erroldoiak, soñeko luzeak, eskuetan azkon andiak.

—Nora zoaz? —itandu eutsoen.

—Aita Santua ikustera.

—Nor zara zu?

—Trigo.

—Aurrera; zuri begira dago.

Barne-bide zabal eta luzeetatik aurreruntz. Aitasantu-zañak geiago. Berak itaun eta nik erantzun berbera. Azkenengoz ate andi-andi bat zabaldu zan eta ertz-gabeko areto eder batean sartu nintzan. Bere tronuan jesarrita, egoan Aita Santua.

—¡La hostia, Pío! —agurtu neban nik.

—M. c. D. Trigo! Tû por aqû?

* * *

OARRA.—Erderaz ipiñi dodaz esakera batzuk, itzulpenaz gatzik galdu ez dagien. Egitez birao izanarren, oitura-arren esaten ebazan. Ezpanakaz iñoanak, ez eutson biotzetik urteten.

Ibáñez Karlos

LUR ABERATSAK, BAINA LANA UGARI EGINDA

Galartzako lur aldeak, dan-danak EGOI aldera begira dagoz.

MURUGAIN azpian, Murugaingo aldapetan: Egiliorretik-Etxezurira, ta Ametzatik-Kukuzulora bitartean danak.

Zelan ura ugari jauzten dan zerutik ta jentea langillea dan, ango lurrak EMANKORRAK dira.

Ango jentea lanean amorratua da, lanerako bakarrik jaiokoak ba'lira lez, orduan derrigor, lurrak ondo emon bear.

Orretarako, lurrei ONGARRI onenak ta Berezkoak botaten dautsez.

Lenago bilduten ziran: GARIA etxe bakoitzean 60 edo 100 anega inguru.

ARTOA apur bat gitxiago, indabak ugari, arto artean, etxerako baiño askoz geiago; ala ta be urte batzuetan, artaberdea, arbia ta abar.

Mota guztietako IGAEAK: Sagarrak, makatzak, edo madariak, okaranak, goiz-geriza ederrak, mizpirak eta abar. Mallukiak be bai.

Barrazkiak be etxerako baiño geiago, ta gure amatxok eroaten ebazan Arrasatera ta diru eskukua ugari etxera, guretzako jazkiak egiteko.

Lana egiten zan ordui begiratu barik, ez egoan goserik etxeetan.

Baserriko ogia etxe bakoitxean egiten zan ta ganera ederra ta ugaría, onegaz ta arto opillaz mutiko sendoak, garbiak ta indartsuak asiten ziran.

Lana ugari eginarren, gazteak ta zarrak be bai, ALAI, gogatsu, asean ta betean bizi ziran, gauza danei arpegia irribarrezkoa emonda.

Aldapa aretako bideak ez ziran gaurko lakoak, lupe- tzez beterik egoten ziran neguan, baiña jentea pozik bizi zan bertan.

ORAIN LAN ERREZAGOAK

Orain bizi-modua aldatu da basetxe aietan.

Ez da egiten lenagoko "asto lanik", basetxeetan.

Ez da biltzen lenagoko beste gari, arto indaba... Solo geienak bedar biurtu dira abereentzako, ta abere geiago daukie etxe guztietan.

Orain jentea esnera ta okelara zuzentzen da.

Onelan diru edo txintxin geiago'ta eskukua eukiten dabe baserritarrek.

Ganera an inguruan zelan dagon FAGORKO ELKARTEA, gazteak an lana egiten dabe zortzi orduan ta gero ARKETA-MARKETETAN, egiten dabez etxeko ta soloko lanak.

Oraingo baserritarrek txintxin ugariago ta eskuan darabille.

Ez dago euren artean lenagoko laburkeri edo urritasunik.

BASETXE EDERRAK

Txintxiñak dana edo geiena antolatuten dabe ludi onetan.

Orregaitik esaten dabe, ludi onetako jainkoa dala.

Lengo etxe zar asko, guztiz aldatuta dagoz.

Etxe geienak kalekoak baiño obetoago ikusten dira. Zelaitik edo kanpotik dana ondo margotuta agiri dira. Lenagoko leio txikiak kendu ziran ta oraingoak aundia- goak ta zabalagoak dira eguzkia ta argia lasai sartu daite- zan.

Aize garbia ta argia ugaritasunean sartzen jakez; ez dira espetxe antzeko leotzak (mazmorra).

Etxe-barruak be, zelaian antzera dagoz. Eskaratza, baserriko-artzaillea dalako, geienetan onduen apaindua izaten da: luzea ta zabala, oraingo tresna guztietakoak daukiez; erdian mai ederra ta onen inguruan aurki sen- doak ta erosoak.

Logelak ugari ta nasaiak, leio zabalekin. Karkaba be, ur biziak ta garbi-ontzi edarrekin.

Gaztelera aldian ikusi dodaz olako etxeak aintxinatxo. Arek jauntxoan batenak ziran, baiña besteak ez ziran ola- koak ta aietan notin garbi, itxurazko ta onezkorik ezin lei- kean sartu.

JAINKOZKO JENTEA

Gure Jaunak Bere adei ederrak ta ugariak, nai dauan bezela, jaurten dauz lurrerantz; ta edonun ta edonoiz.

Baiña geienetan ondo landuta dagozan tokietan uga- riago.

Galartzako lurrak, ontako aldiak dira.

Zelan ez eban botako ba, olako jente langille, sinisdun ta euren eginbideak oso ondo betetan dagozanen artera?

Andik, 15 baserri aietatek ogei urte inguruan 17 notin sagaratu abade, lekaide, ta lekaimak urten ebeñ

Adei orreri erantzun eutsoelako, orain Bere serbitzai- lleak dira Bere mezua edo mandatua zabaltzen lurralde guztietan.

Denbora asko ez dala esaten eustan lagun batek:

Egongo ete da olango erritxo bat, ainbeste notin saga- ratu daukazana Euskalerrian ta ludi guztian be?

Gaitxa izango litzake uste dot.

Lenago ZEANURI izaten zan abade ta erlijo-zalea. Ete dago orremeste?

Olako jentea, bai, lenagokoa, praka, gona, oski ta zapi zarrakin zuzen zerura sartuko dala.

Ez noa esaten SINIST-AUSTERIK edo lotsa-gaberik, aiek sartzen ez da ba'dira nortzuk sartuko eta dira ba?

GALARTZAKO ETXE ENTZUTETSUAK

CASA TORRE DE GALARZA: Eliza ondoan dago etxe bat oso ondo ta gogor dagona. Bederatzigarren edo amargarren MENDEAN egindakoaren itxura dauko. Bere lau orma nagusiak neurkin bat eta erdi daukie zabalera. Tontor baten ganean eraikita dago.

Etxe oneri **CASA TORRE** de Galartza esaten dau-tsoa.

Gordeleku ederra izango zan lanagoko gudetan.

Azken gudan bertan egon ziran, sei illebeteen talde bat.

Jaurti eutseezan ainbeste amabosteko kainoaren tiroiñ baiña ez eutsen egin ezaugarririk.

Etxe orretan bat da naikoa, zelaitik eun datozenean. An dagoana lasai egon leiteke.

MUREBE: Murugain azpian, obeto esateko, Murugain oin-oiñetan dago oraindik etxe zar bat, ia jausten. Nire gomuta guztian ez da bizi iñor bertan.

Ango **EDESTIA** apur bat dakienak, diñaut, **MURUBEN** zezen-ezaupidea etxe zar orretatik datorrela.

Ortik aldentutako jentea joan zan egoi aldera, ta an abereak gorde ta egin dirutxuak ta asi zala **MURUBEN** **ESAUGARRI AU** goratzen.

Ez dira lenengokoak, euskal aldetik joan ta egoi aldean ondo bizi direnak, euren **ABIZENA** goi-goian ipiñi dabenak.

ZILAUURREN: Galartza auzo barruan sartaldera, dagoz **IRU ETXE**, ta iru etxe aieri esaten dautsee: **ZILAUURREN**.

Etxe bakoitzaren izenak oneik dira: Errartena, Irkizue-na ta Peruena edo Kukuzulo, au gaitz-izena.

Orain ez da agertzen etxe pillo orretan olango **ABIZENIK**.

Ez dago idazki garbirik, baiña orain lau gizaldi, jaun antzute aundikoa izan zan.

Sasoi orretako jenteak ez eban itziten **ZIGILU** edo markarik ta orregaitik, ez dago, argi nortzuk ziran eta zertan ari ziran.

Etxeberria'ta Isidor



Auzoaren ikuspegia: Baserriak, soloak, basoak.

GERNIKA'KO URRI-ASTELENAK

Lenagoko euzko —oitura zar asko aztuak edo bastertuak izan ba'dira be, beste ainbatek len baizen indartsu, kementsu irauten dabe; esate baterako Gernika'ko Urrilla'ko astelenak, eta batez be il orren lenengo ta azkenengo astelenak.

Edozein irakurlek dakian lez, astelen guztietan ospatzen da salketa mardula Gernika'k orretarako dauaen enperantza bikaiñean, Bizkaia'n dan salketa, merkaturik aundiena, baiña, Urrilleko astelen bi orreitan ospatzen diranak, benetan izaten dira ikusgarriak ortuari edo barazkirik onenak bertan ikusi ta erosi geinkezalako. Orretara izanik edo, enperantza orren barruan edo aldamenetan bilduten dan ostetza ikeragarria izaten da. Eta, zelan ez? Urri'ko azken-astelenean izan zan baserriko barazki, txakolin, sagardo, gaztai ta abarren leiaketa izan ezketiño?

* * *

Aurtengo azken-astelen orretan izan giñan, geien bat leiaketa ori ikustearren eta, benetan ikusgarri iruditu jakun, Bizkaia'ko erririk geienak edo askok beintzat barazki ta beste salgai gauza ederrez ondo ornidutako txozna apaiñak enperantza-biran ipiñiak ziralako, bertaratutako ostetzaren ikusgarri ta erostoki lez apain-apain jarririk.

Gu baten baiño geiagotan alegindu gara Gernika'ko Urri-astelen orren oitura noztik eta zertatik ete-datorren. Saltoki-enperantza orretara zuzenduten diranak asko ba'dira bere, beste asko ta asko dira orren ardurarik izan ezarren egun orreitan Gernika'ratuten diranak. Bertan dogun Zugaitz Donea ta Batzar-etxe ospatsua ikustarrean? Banaka bat. Gernika'ko jatetxe baten edo bestean betekada gozo bat egitarren? Ez dakigu zergaitik. Antziñatik datorkion aomen edo fama ori zertatik datorren, iñork ez dauskulako erantzun zeatz bat emon, egunen baten gure adizkide min baizen euzko idazle azkarra dan Zubikarai'tar Augustin'eri itandu ondoren gizon jakitun orregandik zerbait jakiten ez ba'dogu.

* * *

Dana dala, nai-ta ez geran ainbeste notintza-artean ibilliten zaleak, atsegin jakuz antziñako oitura eta, beti aleginduko gera aurrerantzean be iraun dagian.

Gure gaztaroan, emen izan genduban guda zitala baiño len, egun orreitan gaztediarentzat be jolas egokirik asko egoten ziran Gernika maitagarri orretan; egunez, idi-demak, probak, pelota-jokaldiak, eta arratsaldean, bertako enperantza zabal ederrean, dantzaketak, bertako eresbatz entzutetsuaren soñuak eta txistulari ta auspo-pandero otsean, enperantza guztia gaztez beterik zala. Gabeen barriz, pelota tokian lenengo pelota eta urren gaberdirarte dantzaketa.

Gaur-egun ez dago dantzaketarik eta, ori ta guzti be ainbat gazte ikusi genduzan. Zertarako? Bertako ardangela edo edatetxe ugarietako zulo-basterretan sartuta errekin-keatz eta drogaz kutzatuteko? Zorionez, ez danak baiña, bai asko.

Euzko Gaztedi jatorra! zuzendu bai Gernika'ra, bertako ikusgarriak ikusi ta aditaldu, jolas garbietan jolastu, aize garbitan dantzatu edo kirol kementsuetan saiatuteko, gogomen argiz eta soin sindoz gizon-emakume etorkizundun izan zaitezcan Euzkadi ta gizadiaren onerako.

Gernika'ko Urri-astelenak!! Zenbat gogoratzen doguz!...

Altuna'tar Josu

ANTZERKIA BIZKAI'KO EUSKERAN

(AUGUSTIN ZUBIKARAI)

Ondarrutarra naz.

Bertan jaio nitzan eta bertan bizi.

Euskeraz dakidana bertan dot ikasi.

Gaur, Antzerkia Bizkai'ko euskeran ikasten nator. Ikasi edo gogoratu, erakutsi baiño geiago. Onetan be ondarrutar naz: fede oneko.

Origaitik uste izango dozue estu agertuko nazala, mirrin, norberekor, txoko-miñegi, nire erri-zaleegi.

Ondarru beretar azaldu gaitik, beti izan da, guk azkenak janda esaten dogun lez, arru.

Eta etxean geratu, lotu ta trinkatu barik, ba daki, len eta orain, erbesteko miñez nun nai agertzen.

"Boga-boga" abestuten ba dakizue. Gure kantu ori entzuna da. Ia zabalegi. Bazter eta txoko, zulo eta zelai, atxarte ta mendigain, itxasontzi ta baserri, ia gure artean erabilten dan kanturik ezagunena.

Bertan agertzen dakigu gure gogo. Gogoratu: "joan bear dogu urrutira".

.....

Kantaldiko ondarrutarrak lez nik be ba dot nire kezka. Nire itxaso euskal elertian, euskal literaturan egon da, ogibideko lanen orduak kenduta. Origaitik gaixoa lez, gaitza lez daroagu soñean. zerbait entzun edo jakin orduko, jagi eragiten dauskun kezka ixilla, baiña etenbakoa, barrubarruko miña, arrenkura. Eta euskal antzertiari buruz zerbait entzun edo jakin al izateko betarik dodanean, itsu-mustuan gertaten naz ortara.

Egia esateko, azken urte oneitan, gure artean antzerkiak tengadarik eta arradarik ez eukala-ta, beste arlo batzuetara aldatua nabil. Baiña oraindik lengo garra irakiten nabaitzen dot sarri. Origaitik batzar edo ikasketa onetara etorteko deia artu nebanean, ezin ukatu, eta soñean soinekoekaz, edo dakiguna dakigula, prest gertu nitzan eta ona emen zuen aurrean agertu.

ANTZERKI ZARRAK

Ezin geinke luze joan antzerki billa, errialde onetan. Ez eta gure inguru urrenekoak be.

Gauza bakan lez, ziurtasun oso barik, gitxi-gorabera, 1.150 urte ingurutakoa izan leikela-ta, "Auto de los Reyes Magos" agertzen da gaztelatarren erdi aroko liburutetan.

Eta ortik Toledo'ko Gorpuzti ibildeun eta jaietara eroaten gaitue.

Kontuegin Toledo'ko Gorpuzti ibildeunen lenengo aztarre ziurra 1.418 urterarte ez dala billatzen.

1.456 urtean sartzen gara lenengo atzekizun edo agerpenak zeaztuta billatzeko.

Ia 1.499 urtea emoten da Alonso del Campo'ren "Auto de la Pasión" aldizkatzeko.

Esan dogu noiz asi ziran Gorpuzti'ren ospakizunak, baiña drama-autuak, jaietako zati eta ospakizun lez, XV garren gizaldiaren azken zatian ezagutzen dira.

Egia da gaztelanian baiño Katalunian eta Aragoi'ko lurraldetan lenago billatzen dogula.

Antxiñetatik ezagutzen dabe kataluniarrak "Cant de la Sibilla" deitzen dabena. XIII garren mendean Vich'eko katedralean "Bisbetó" (Obispo txikia) izenekoa irudia agertzen asi ziran. bardin Lleida eta Katalunia'ko beste eleiz andietan. Gaur Montserrat'era joaten diranak, eukiten dabe jai ori ikusteko aukera.

Gure ingurueta begira nabil. Ez mundu zabalera.

Danok dakigu Kristo baiño VI gizaldi aurretik ba egozala Grezia'n teatro antzeko agerkizun batzuk.

Geroago Tesis (Kristo aurreko 550 urtean izan zan lenengoz abestiak aldatu eragiteko bidea asmatu eta koroekaz berbaz jarduten irudiak agertu eta jaiak egiten asi zana.

Latindarrak Livio Andrónico gogoratzen dabe, asierako antzezgille lez. Euren jaiak, erromatar jaiak, "ludi romani" deitutakoak, entzute eta ospe andia eukiten eben.

Eta Kristo aurreko 240 urtetik ezagutzen dira erromatarren tragediak be.

ERDI-AROAN: PASTORALAK

Gero dator esan dogun erdi aroko antzerkia. Ia Europa guztian eleiz oiturekaz sartua. Eleiz liturgietan oiñarritua. Meza berberak ba dauka teatro antza. Bardin beste agerpen batzuk. "Eleiz funtsiñoiak" esango neuke nik. Oraindik be lengo zarrak erabilten dabe berba ori. "Funtziñoia" dago eleizan; eleizara nua "funtsiñoira" eta abar galdu barik dagoz gure oiturazko berbetan.

Euskal antzerkia, teatro, aitatzen danean, lengora joatean, beti pastoral zarretara jo bear dogu.

Pastoralak izan diran euskal antzerkiaren asiera. Ipar Euskadikoak "pasturalak" deitzen dautse.

Julio Urkijo zanak, bere lan baten, 84 pastoral zenbatuten zitun, era onetan banatuta:

Antxiñako kale bizitza	2
Testamentu zarrekoak	8
Testamentu barrikoak	9
Santuen bizitzak	18
Abenturetako erromantzeak	11
Egitada andietako kantuak	5
Kondaira (edesti) mitikoa	13
Iñauterietak (Aratustetak)	2
Barregarriak (fartsak)	16

Itauna au da: Noizkoak dira euskal pastoralak?

1.926 urtean RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) en agertutako lan baten, G. Herelle'k, frantzes,

onela deitzen eban bere lan bat: 1.500 urteko pastoral bat.

Eta berak, lan orretan, onelako esaerak egiten daki: Len, idatzitako pastoralik zarrentzat, 1.723 urteko bat zala uste zan. Baiña, bere esanetan, Buchon eskribaduak 1.839 urtean Euskalerrira egin eban ibilaldi edo osterabaten, "Iru Martiri" deritxan pasturala ikusi nai zain eban Santa Engrazi'n. Eta ibilaldi orretan, Atarratz'en, 60/70 pastoral gordeten zitun bilduma bat ikusi ebala, eta an egoala 1.500 urtetako bat.

Herelle'k diño Buchon ori 1.846 urtean il zana, 55 urtedun, ibiltari andi zala eta paper zar batzaille amorratu.

Berak, Herelle'k, milla alegin egin zitula pastoral orrein jaube egiteko, baiña ez ebala aukerarik artu. Alaz eta Buchon fede oneko zala eta guzurrik ez ebala esango.

Izan ete lei urte orretan pastoral idatzi bat egotea?

RIEV berbertan Urkijo'ren lan baten au irakurri lei: "A finales del siglo XV, en la coronación de Juan de Labrit y Catalina de Foix, en Iruña, se dice que hubo alguna representación en vascuence".

Pero lo cierto es, diño Urkijo'k, lo cierto debe ser que dentro de los autos en castellano se intercalaron algunas versos en euskera.

Beste jakingarri bat: 1566 urtean, Naparroa'ko Lesaka'n euskerazko Nekaldi edo Pasiño bat antzeztu zan. Berak diño: "Se había representado en Lesaca un auto de la Pasión en verso de bascuence. Pasión impresa en Burgos en el año 1564.

Ontaz, beste toki baten au irakurten da: La Passion Trobada, de Diego Fernández de San Pedro, escritor de fines del siglo XV. Se cree que su Pasión fue impresa por primera vez en Salamanca en 1496.

Eta geroago beste iru-lau tokitan.

Lesaka'ko Pasiño orreri nabarmenkeri batzuk billatu eutsezan. Origaitik Urkijo'k diño: Parece que el censor de Lesaka marcó con cruces por mal sonantes y un poco escandalosas algunas palabras. Sin embargo, dichas palabras no llegan a la crudeza de los términos corrientes de muchos libros de piedad, como, por ejemplo, el Guero, de Axular.

1602 urtean, Gipuzkoa'ko Ondarribi'n agertu zan Pasiño edo Nekaldi bat. Orren agiriak ba dira. Beraz ziurra da.

1603 urtean Gipuzkoa'ko Errenderi'n agertu zan beste antzirudi bat: "Se representaba en Rentería una pieza intitulada "El triunfo de la limosna", cuya figura central fue don Miguel de Zabaleta.

Baiña urte aretan mutil au abade egiteko zan, ordena txikiak artuta. Ortik dakigu ain zuzen be antzerki orren barri. Bein orretara eldu ezkerro, ez zala giro egokia bereztat, eta zaindu eta egin al izateko baimen eskabidetik dakigu barri au.

Orrela, urteak aztertu eta errietako kondairak irakurri, ez da gaitz nun-nai orrelako egiaztapenak billatzea.

Baiña guazen arira.

Ni bizkaitarra naz. Eta Bizkaiko antzertiari buruz zerbait esatera etorri naz. Ori da euki dodan deia eta gaia. Origaitik, zuetariko edozeinek esan zeinkie: Galdu barik joan zaitez Bizkai'ra. Zer dakizu gure jaurerri (jaunen erri) onetako? Zer dakizu Bizkai'ko barri?

Teófilo Guiar'ek, bere Historia de la Noble Villa de Bilbao liburuan au diño: "En Bilbao había mucha afición a todos los regocijos vistosos y de estruendo. Los cofrades

de Corpus Cristi alzaban la solicitud en su octava para la celebración de autos y, en su defecto, los disponía el Concejo. El teatro o tablado era levantado comúnmente en la plazuela de Santiago o en el Mercado.

1566 urteko agiri baten au esaten da: Bilbo. Instancia dirigida por los cofrades mayordomos del Corpus Cristi en la que explicaban que tenían acordado azer el día de Corpus Cristi dos comedias de la Sagrada Escritura e otros regocijos. Y solicitaban fuesen servidos de dar orden donde o en qué lugar de esta villa se fiziere un tablado, é les favorezcan con alguna cosa para fazer dicho tablado." El Concejo mandó que se levantara en la Plazuela delante de la Iglesia del Sr. Santiago y entregó cuatro ducados."

Beste urte baten au irakurten da:

1577.—"Vinieron (a Bilbao) Juan López, maestro representate y su compañía desde Markina.

Alaz eta Urkijo'k diñonez, Markiña'ko Mugartegi egillea ibili zan Juan López onen azterrenak Markiña'n billatzen, eta ez ei eban ezer lortu. Origaitik Juan López au erbestetarren bat izan eikeala esaten da, artistaren bat, erriz-erri ibiltan ekien bat. Dana dala, abizen oso barik agertzen dalako, izan eikean markiñarra be, kontuan euki ezkerro, Markiña'n, bertako dantzari eta abar, beti izan dirala antxiñetatik Gorpuzti eguna ospakizun andiz ospatu nai izaten ebenak.

Aldi orretan Ondarroa'n be billatzen da Gorpuzti jaia alaitzeko kanpotarrei dei egiteko oitura.

Geiago. 1603 urtean jai berezi lez ospatu nai izan zan Gorpuzti eguna. Ala diño Labayru'k bere Historia de Bizkaia'n (IV). "Y que deseando celebrar el año 1603 un acto público, escribió el Ayuntamiento al licenciado Adaro, previsor de la diócesis e hijo de la villa la siguiente carta: Eta idazki orretan esaten da, Gorpuzti eguna ain jai berezia dalako, atsegiñez ospatuteko asmoa dagola. Eta beste jai batzuen artean komedi bat antzeztutea pentsatu dala, Santiago eleiz inguruan. Eta jai au bear dan lotsagaz ospatuko dalako, uste dauala eleizgizon gazte batzuk egoki egingo leukela, baiña oneik esaten dabela baimen berezia bear dabela ortarako. Origaitik Bilbo'ko erriak atsegiñez ikusiko leukela orrelako zerbait, eta eurentzako baimen eske dabillala. Idazki au 1603'ko Maiatzaren 10'ean izenpetuta dago.

Guazen aurrera.

1712.—Ba dagoz paperak agertzen dabenak Andra Mariko eleizpean gertuten zala antzezkizuna.

Eta atzerago begiratuta, zeinek ukatu Lekeitio'ko Kaxarranka, len egiten zan lez, gizonak abade jantizita; san Pedro kapa aundiagaz eta abar, antzezkizun barregarri ziranik? Ez al zitun origaitik zigortu Kalagorri'ko gotzaiñak lekeitiarrak, eta antzirudi orreik lagatera beartu?

Irakurri Lekeitio'ko kondaira. 1565 urterako ba dago ortako agerbideren bat. Gero, 1682 urtean Kalagorri'ko gotzaiña gogor sartu zan.

Izan be erri guztiak egiten eban, zela-ala ulertuta, komedia. San Pedro iruditzen ebana Kaixa gaiñean joaten zan, kapa andiagaz, inguru guztietara onesprenak zabalitzen; bere inguruan, oiñez, arpegiak estalduta, oneik be kapakin, san Andres eta San Juan. Eta ainbat dantzari. Eta erri guztia makurtuten zan, belaunikatu, euren aurrean. Entzuteko izango ziran ango zirikalarien batzuen "parkatu Jauna" k.

Azkue'k diño jai aldi ori barregarria izango zala batez be garai aretan inguru oneitan ibiltan ziran frantzetar, flamenku eta ingelesentzat. Eta gotzaiñak galerazota be, Lekeitio'ko parrokian jantziak ukatuarren, lekeitiarrak Mendexa'ra joan ziran eta angoekaz urten.

Aurrera jota, Barakaldo'ra sartu bear gara 1799 urtean. Oiturazko zan an eta bestetoki askotan, Aste Santua amaitzean, Kristo Kurutzetik erastea, sermolaria berbetan inarduan artean, Antz-irudiz, mimikaz egiten zan eginkizun ori. Eta arratsalde aretan eleiza-beteko nastea sortu zan eta urte aretan galerazo zituen mimuzko itzal-diak.

Ontaz len ainbat bidar aitatu dodan Julio Urkijo zanak au esaten ekian: "El teatro religioso, que comenzó probablemente en medio del mejor fervor, fue degenerando en profano; a las piezas piadosas sustituyeron en él las farsas y entremeses, y a causa de los abusos y escándalos a que daba lugar, la autoridad acabó prohibiéndolas".

IÑAUTERIAK ETA ARATUZTEAK

Eta eleiz-antzerkia baztertu eta norbaitek itandu leike: Iñauteriak, aratuzteak, ez al dira, bertako agerkizunak, jakiña, antzerki?

Toki batzuetan, zer esanik ez.

Markiña'n, esate baterako, Aratuste martizenean, Antzar eguna deituten dautse an, "mozorro" eta "txan-txoak" edo markiñarren eran esanda "kokoxak" egiten dabena ez dago antzerki agerbide edo estampa batetik urrun.

Antzarretarako gertuera, antzarrei olioiz lepoa beteta eta zaldi gaiñekoak eskuak saietan igortzita, rito bat beteten dabe. Eta gero txistulariak, lenengo "Andante" moduan, eta antzarrari burua moztuta gero, "allegreto" baten antzera, ori ikuskizun bat da. Eta edozelan egin ezin leikena.

Lekeitio'n, estudiantina ta guzti egiten ebena, zer da? Eusebio Azkue'ren bertsuak gogoratu:

Aratuzte eguna dala-ta
kalera gaur urteten dogu,
jendia pozez batetearren
alegiña egingo dogu...

Eta orrela, sei bertso, lenena euskeraz, bigarrena erde-raz, eta era orretan.

Ondarroa'n arrantzale mardulak urteten ekien. Ba euken "habanera" antzeko doiñuzko kantu bat. "Kuardi-llan batzen gera" deiturazkoa.

Ez da ederra izango aurtengo negua,
pobrientzat ez da izan entero berua,
mendebal, norteko aize, ipar pikarua,
aretzek emoten dausku sarri endredua.

Ezer entzun al dozu lagun albokua?
Ba dala diñue partiu;
makallau, sardiña zarra edo potxerrua,
gustora edango dogu gero sagardaua.

Eta Gernika'n, ango dantzari marrotuak edo "mar-roak" egiten daben ollar jaia? Gizonak begiak estalduta, lurperatuta egoten dan oillarra billatu eziñik, nai ta orreta-

rako txistularia euki ollarraren inguruan doiñuagaz oartu eragin nairik.

Eta Elorrio'ko artzak eta euren inguruan dantzatu, irriz bete eta jendea barre algaraka ipinteko zeregiña euki-ten eben kokomarroak, zer?

Ezin ukatu, euren erara, erri antzerki diranik.

AGUSTIN BASTERRETXEAA'REN PASIÑOIA

Len, Lesaka'n antzeztuten zan Pasioatzaz berba egin dogu, edo aidean zerbait esan dogu.

Ez ete zan euskaldunentzat serbitzu berean agertu Agustín Basterretxea'ren "Jesu Cristo Jaunaren pasiñoia, euskerazko bertsotan?

Agustín Basterretxea Lekeitio inguruko Ipaster'en jaio zan 1700 urtean. Eta 61 urtedun zala il Orduña'n. Jesulaguna. 61 aapaldi edo estrofatan egin eban pasiñoia eta sinistu eziñiko arrastada lortu eban Euskalerra guztian. Kontuan euki bera ilda gero, 1777 urtean argitaratu zirala lenengoz Bilbo'n bertso oneik, eta geroago bereala gipuzkerara aldatuta, aita Kardaberaz'ek egindako aldaketaz, agertu zirala eta Aita Galdos'en esanetan, beraz euskera garbira eratuta 1928'n kaleratu ordurako, gitxienez ogei bidar atara bearra egon zala.

Pasiño ori oraindik be eleizetan abestuten da. Erdi antzeztu esango neuke nik.

Ondarroa'n, esate baterako, eleiz "funtsiñoia" esaten dana baiño ordu bete aurretik eleizan batzen da jendea Eguen eta Bariku Santu egunetako arratsaldetan. Eleiz guztia illun ipinten da, leioak oiazez estalduta. Eta Apostolu eta Kristo bizia egiten dabena erdi-erdian jarten dira, eta Kristo iruditzen dabena asten da bertsoak abestuten eta erriak, errepika lez, "Damu dot Jauna" berbekaz asten dan bertsoa osorik abeztuz erantzun. Orrelaxe abadeen "funtsiñoia" asi arte. Origaitik Kristo iruditut bear dauanari abots ona eskatuten jako. Kontuan eukita lengo gizaldian, eta oraingoaren asieretan be, Kristo Gurutzetik beratzea geldi-geldi egiten zala, len Barakaldo'n aipatu dogun mimikaz, eta kontuan eukita Kristo bizi eta Apostoluen gain, beste iru Mariak, eta Beronika, eta Maria Madalena, eta San Miguel aingerua, eta Simon Zireneta-rra, eta Jerusalem'go alabak, eta erromatar gudariak ("palazeruak") be an batzen dirala, orrelako gertaera bat erdi aroko eleiz-antzerkien ondoren dala pentsatea, ez da adarretatik ibiltea.

Gure oraingo denporetan be, arratsaldeko funtsiñoian, nai ta Kristo eta Apostoluak eleiza barruan egon, esandako beste pertsonaia jantzi guztiak, eleizpean geratzen dira. Eta abadeak, gurutzetakuak egiten amabigarren egotaldira eldu eta "amabigarren estaziñoia, Jesus gurutzean ilda geratzen danekua" esaten dabenean, eleizako ate nausiak txirri-otsean zabalduten dira. Eta "Palazeruak eleizpean, laurak batera puntzoekaz beia joten asten dira, eta bi aurretik, ondoren esandako pasiñoiko pertsona bizi guztiak eta azkenean beste "palazeru" bi, konpasean lez oinkadak egiñaz sartzen dira. Lenengo palazeru biak Aldara nausiaren oiñetan egoten dan Kristo illaren kutxa ondoan geratzen dira eta iraun jendetza orren atzetik doazan beste biak eldu arte. Eta lau "palazeruak" bertan batzean, azken joaldi bat egiten dabe, laurak kutxari begira geratzen dirala, Kristo illaren zaindari, Azken beia jote orrek garrantzi

andia eukiten dau, laurak batera egin ezik, zer esan edo mar-marra sortzen daualako. Zer esanik ez Gurutzetakuak egiten inarduan eleizako jendea, euri begira adi-adi egoten dala sarrera onetan, gurutzetakuekaz be aztuta, sarrera amaitu eta abadea barriro jarraitzen asi arte.

BARRUTIA'REN GABON GABERAKO IKUSKIZUNA

Dana dala, ibili ta ibili, bizkaitar lez esan bearreko da, antzerti idatzitako lanik zarrenetakoena, pasturalak kenduta, "Gabon Gaberako Ikuskizuna" edo Acto para la Nochebuena dala.

Bere egillea, Pedro Ignazio Barrutia, aramaiotarra, geroago Arrasate (Mondragoeko) eskribadu izana.

Nai ta arabar jaio eta Gipuzkoa'n bizi, izkuntzaz bizkaitarra.

1682 urtean jaio zan, 1759'n il. Bera da euskeran idatzitako drama baten agerkai bat, 1764 urtean agertu zan "El Borracho Burlado" (Peñaflorida'ko kondearena) baiño aurreragokoa.

Eskuz idatziriko lan au Juan Carlos Gerra eskribaduak billatu eban Migel Viguri jaunak bere etxean eukan liburutegian, eta Azkue'ri bialdu eutsan, gauza bakan lez, ikusi eta argitaratu egian. Azkue'k "Euskalzale" asterokua ataraten eban eta bertan agertu eban lan au, egia esanda, eukazan erderakada batzuk kenduta, 1879 urtean.

"Añamendi"n au esaten da ontaz: "Se trata de una manifestación tardía del teatro litúrgico medieval al modo de los Misterios y Moraldades franceses y de las piezas castellanas y portuguesas del siglo XV. En ella se glosa el misterio del nacimiento de Cristo en el que intervienen personajes extemporáneos y populares, tales como Mari Gabón, Gracioso, Tomás el Tabernero y Chato, que salpimentan el relato dándole una agilidad extraordinaria.

Los méritos artísticos de Barrutia han tardado en ser reconocidos, ya que desde su publicación en 1879, pocos fueron los interesados en su obra. Debemos a Gabriel Aresti el redescubrimiento de este "acto" lleno de ingenuidad y de gracia".—Beñat Estornés Lasa.

Ontaz Villasante'k diñona au da: "Es claro que el valor literario o estético de una obra es independiente de la forma de escribir o escuela a que pertenezca el autor, de que emplee tales o cuales voces, etc. Y efectivamente, la obra de Barrutia, examinada desapasionadamente, mezcla de lo serio y de lo ridículo, de lo trágico y cómico, todo ello con una naturalidad que cautiva. (Hist. de la Literatura Vasca).

Beste adetetik Koldo Mitxelena'k: "Un auto breve y sencillo e torno al nacimiento de Jesús que no está muy lejos de ser una de las mejores piezas del teatro vasco y sin duda lo es en su género". "La acción es doble en parte, como también lo son los personajes. Pasado y presente, sagrado y profano, Belén y Mondragón se entrecruzan y combinan mediante un artificio tan hábil como sencillo" (Mitxelena, H.L.V.).

Ontaz Aresti'k "Euskera" aldizkarian, 1959 urtean, izen onetako lan bat agertu eban: "Pedro I. de Barrutia, Mondragoko eskribuaren 'Gabonetako Ikuskizuna'".

Geroago Aresti berberak "Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitia". "Euskera", 1960.

Aresti'k "Auspoa" bilduman lan ori agertzeko gertu ebanean, au idazten eban bero itzaurrean: "Emen dihoazkitzu, irakurle, gure teatro zati zarrenak. Zuberoa'ko pastoralak alde batera utzita, ezpaitakit nik zarragoak ala barriagoak diran, baña guztia dan bezela, beste kategoria batekoak baitira, orain dakigunez ezta eskribitu au baño teatro zarragorik.

Eta Mitxelena eta Villasante'k emon dautsen garrantzia gogoratu ondoren, au diño: "Beste batek, Aita Akesolo karmelitak, eztio inportantzia andirik ematen, baña ala ere, ezta aren kontra ausartzen, nundik dabillen seguru ezpalego bezela".

Esan dogun lez, Barrutia'ren lana "Euskalzale"n agertu zan 1897 urtean.

Bere zuzendariak, Azkue jaunak, argitaratzean, oar auxe ipinten eban: "Mondragoeko gure adizkide batzuk kortu ta eskuratu dāuskue irakurkizun au. Erderazko gauza asko ta erderakada geiago eukiarren, guztia igertu nai dogu, azaldariak (Mondragoi bertako eskribau Pedro Ignazio Barrutiatarak) orain ia berreun urte egin eban erara".

Irakurten asi azkero, klasiko usaiña, gotiko usaiña, tankera, artzen dausat nik.

Guk ondarrutarrok ba dogu kantu zar-zar bat, urtean bein edo geiagotan, arnas bete-beteen kantaten dakiguna.

Antxiña, kantu ori, onela asten zan:

Bieta Santa Clara,
euskera argia,
zeu zara zeruetan
dontzella garbia.

Gaur, Felipe Arrese Beitia zanak, Ondarroa'ko eleizan aldre bat egiten inarduala entzun eta aldatuta, garbituta, beste era onetara abestuten da:

Erderaz zara Clara,
euskera Argia,
zeu zara zeruetan
izar bat garbia.

Kantu onek bere zortzigarren koplan diño:

Eskuetan daukazu
gauzaren andia:
Kustorio batean
Jesusa bizia.

Oartzen? Konturatzen? Jesusa artikulu ta guzti.

Era au dala ta on Manuel Lekuona jaunak, esana dauka:

"Gaur ez du inork erabiltzen olako izen formarik. Antziña bai, erabiltzen zan. JESUSA ori arkitzen degu, zenbait antziñako Gabon kantetan (gaur oraindik ere erriak erabiltzen dituan gabon kanta zaarretan). Baña gaur Gabon kantak ateratzen dituenak, ez bait dizute ametsetan ere olakorik esango. Ez orain, ezta lentxuago ere. Olako kantak, kanta zaar-zaarrak bide dira. Erdiarokoak? Bete-beteen bai, nik uste.

Naiz ta amaseigarren gizaldian ere oraindik irauten zuan Jesusa ta Frantziskua esateko oitura orrek, lengo gure Boletinean Mitxelena jaunak erakutsi zigun bezela, bere Prantziskua, Peria eta Jesusa'ri buruzko lan politetan. Bañan ordurako, oitura ori galtzeko zorian-edo zegon inñolaz ere. XVI gizaldi artako eskribatzaille guztiak

beintzat, ez bait beti berdin erabiltzen forma zaar au. XV garren gizaldian, bear ba da, indarrean egongo zan; eta XIV'ean zer esanik ez. Eta ain zuzen, gure Santa Klararen kanta onetan oso indarrean dagola dirudi”.

Ortik emon ba leikio zar itxura lan bateri, Barrutia'ren lana zarra da.

Entzun Aingeruaren bertsoak eta esanak san Jose kezketan ikusten dabenean:

“Joseph itzi beio pentsamentu orri,
biotzeko penea desterra bidi,
Zure esposegan ez ta posible
iñor edirozea kulparik batere.
Labur da gizonaren adimentua,
Aditzeko Jaunaren ordenadua,
Espiritu Santuak keriza eginik
Jesusa xaioko da Birginea gandik.

Eta aurrerago, Jose eta Mari Belengo bidean doazela:

Jose.—Xaunari demaguzan graziak Maria,
orra nun agertu dan Belengo uria.

Virgen.—Eperik ezta Josef cumplitzen estanik
laster xaioko da *Jesusa* niganik...

Geroago, eta beste kantu baten:

“Bekatariak alagra bitez, alegra bidi zerua
Portale baten jaiorik dago Messias prometidua,
zeruarentzat gloria dakar gizonarentzat bakea,
bakea bera ez nolanai, ondasun askoz betea,
Amorioak dakar zerutik *Jesusa* zuen artera...

Beraz gure umea aguretu daigun, zar itxura eta izana emon daioguzan, gaur izkuntzan notario nagusi diran Lekuona eta Mitxelena jaunen baimenez eta aburuz.

Barrutia eskribadua zan. Ziurretik etxetik kanpo, Euskalerritik kanpo, ordukoen oitura zan lez, ikasketak egiten Gaztelanian ibilia eta ikasia. Eta ziurretik, baita, gaztelaniz asko irakurten oitua.

Idazle guztiak bakoitzaren taju eta erak eukiten dituez, et era orreitatik euren tankera, kutsua igarten da.

Nik, eta onekin ez dausat osperik eta meriturik batere kentzen Barrutia'ri, bere kutsua, bere taxua, Erdi Aroko gaztelar idazlerik ospetsuenetatik datorkiola esango neuke.

Barrutia bizi zan garaian Lope de Vega eta Calderón de la Barca'ren lanak zabal ebiltzan nun-nai.

Edozein emakumeren esaera ei zan garai orretan gauza eder bat oartu ordurako:

Ori Loperena da.

Beraz modan egoan.

Barrutia'k darabillen gaia be giro-girokoa da.

XV garren mendean Juan de la Encina'ren Autos de Navidad'etik asi eta gerotxuago Eglogas al modo pastoril” Lucas Fernández'enarekin, gai ori gero eta zabalago ebiltzan garai aretako idazleen artean. Eta beti kutsu bardiña lanei irarriaz: Gauzarik andi eta gurenena agertu eta erakusteko, ta berari indar berezia emoteko, askotan, geienetan, *barregarri* bat tartean sartu bear.

Era au Valenzitarren eskolan zearo sartu zan eta askoren eritzia da Lope de Vega berberak Valenzitarren eskola onetik ikasia ebala ori. Valbuena, erdizka ba da be, eritzi

orretakoa da. Eta eskola orren indarra ezagutu ezkeror, diño, geroago be Guillén de Castro'ren lanetan be, eskola orren kutsua igarten dala.

Barrutia'ri euskal kutsua, euskal izatea kentzen nabilala pentsatu lei zuetariko batek.

Norbaiten bidetatik dabillala esateak, ez dautsa iñori meriturik eta berezitasunik kentzen.

Eskolak sortuten dituenak banakak dira munduan, eta jarraitzalleak, nai ta ospe eta entzute biziko agertu, nai eta nortasun sendo eta bereziz agertu, ez dabe lotsarik ortik jarraitzen.

Gure egunetan be, Chelderode Flandestar dramagille ezagun eta jatorrak, idazle giarratsu eta gordiñak, ez dau lotsarik agertzen, bere giroan elisabetarren tankerako kutsuaz asi ba zan be, Lope de Vega'ren “El Arte Nuevo de hacer comedias” araudi lez artu eta bere bidean eta eratan ibilia dala autortu eta erakusten.

Lope, bere aginduetan, tragikomedi zale zalako, barre eta negar, bizibideko oitura ta izate gordiña teatro lanetara eroatearen aldeko zan.

“Gabon Gaberako Ikuskizuna” gain gaiñez aztertu daigun:

Egillea:

San Jose,
Virgen,
Ministro,
Gracioso
Chambolín,
Tomás, mesonero.
Chato, criado.
Lucifer,
Asmodeo,
Belcebú,
Beltrán,
Mari Gabon,
Lorenzo
Gabriel,
Tomás,
Aricha,
Asegin-zoro.

Konturatu? Oartu? *Gracioso*. Or dago Lope'ren eskola. Lope'k bere antzertiari bizitasuna eta nortasuna sartu eta irarteko sortu eban antzez-notiña, personaia: tipo de *gracioso*, figura de *donaire*, bere garaian deitzen jakon lez.

Barrutia ez zan ibili izen bat ipinten bere gizon berezi orreri. Errezena *Gracioso*. Ez al da argi?

Barregarri orreri, “gracioso” orreri, sekulako papera edo zeregiña ipini eutsan. Iñoren eskolatik ibili ba zan be, ba eukan Barrutiak bere gatza, bere trebetasuna, bere iza-kera, bere gurpilla.

Barrutia'ren Ikuskizuna, erdal kopla batzuei jarraituz dua. Segurutik kantu ezaguna bere garaian. Eta gero irudi samurrak, bigunak, biozkorak batzuk; barregarriak eta arloteak bestetzuk. Fin-fiñak batzuk, gangarrak besteak.

Ezin nei lan onetan, asko zabaldu. Atsegiñez egingo neuke, baiña oraindik Bizkai'ko antzertiaren asko ikusi bearra dogu. Origaitik “Gracioso”ren urteera batzuk ikusi daiguzan. Ministroa ta bera dabiltz jardunean:

Ministroak.—...gizon bakoitzak pagatu bedi tributua ta zensua.

Gracioso.—Diruak ez atara zeori eztok egingo beloa,
Ene bolsea arina beti urrin neuganik dirua,
nik neuk ere dirua baneu ederra neuke
musuá

Ministro.—...txakurrak eurak egiten dabe danza dirua-
gaitik.

Gracioso.—Gure Mondragoen pagatzen dogu dirua
dantzeagati.

Auxe dok bizitza modu,
neskazarrok danza egin da mutillok di-
rua pagadu.

Ibini bidi, Alkate Jauna, ibini bidi legea,
mutillak libre, neskatzak eurak paga de-
zaela danzea.

Ministro.—Zuk emoniko sentenzi orrek chapadamente
dirudi

zu legezko abodagurik ez da sekula ikusi.

Gracioso.—Zerrebeta jo bidi emon daiztan salto bi.
Chambolin.—Zer soñu?

Gracioso.—Gura doana joegik eze guztirako nok
agudu.

Esan bearreko da Barrutia'ren antzeki onetzaz 1983
urtean Araba'ko Aldundiak liburu eder eta mamitsu bat
atara dabela eta dirala iru-lau illabete Paris'en doktoradu-
tza lortu eban Latxaga abadeak be urte onetan zabaltzeko
beste mardul bat gertua daukala.

Barrutia'ren Gabonetako Ikuskizun onen antzeko da
Gipuzkoan GABON SARIAK edo gabon-kanta eta otsal-
diak. Egillea: Sor Luisa. 1752 urtean argitaratu zan.

Eta denpora berekoa dan EL BORRACHO BURLA-
DO. Au euskera ta erderaz nasteen, Francisco Xabier
Maria Munibe eta Diakez'ek egiña. Onela diño azalean:
Opera cómica en castellano y bascuence, escrita y puesta
en música por un caballero guipuzcoano".

Esan bearra daukat len esan dodan Sor Luisa, au da,
Sor Luisa de la Misericordia, Peñafloredako kondearen
deituretako bat dala.

Baiña beste itaun bat: Gaur ainbat tokitan ezagutzen
diran Gabon kanta asko ez al dira Gabonetako Ikuskinzu-
na'ren antzeko beste teatru bateko zatiak?

Gogoratu "Gernikako Marijesiak".

Bedaritzu egunetan abestuten dira, goizaldetan, Gerni-
ka'n, Gabon aurrean.

Ontaz gernikarra dan Arana Martija'k erantzuten
dau: Berak diñonez, oiturazko da Marijesien erronda Biz-
kai'ko toki askotan, baiña berezien Gernika'n, bederatzu-
rren lez.

Izkuntzalari eta etnologo asko kezkatu dirala euretzaz.

Ikusbide baten ez dira gabon kanta soillak, teatru ida-
tzi baten ondorenak baiño. Pastoralen antzera egiñiko
batenak. Eta ortarako bakarti eta gidari, egunetako doiñu
aldatze, iraupeneko denpora, koru eta bakartien alkarriz-
keta eta abarrek antzirudi baten itxura daukela.

Gero Genika inguruko Forua'n, Urdaibai baserrian
billatutako eskuz idatzitako Marijesietan billatzen dan
bertsoa:

Barri ederrak, zoragarriak
Gozotasunez beteak
entzun ditugu gaurko gabeen
bai neure gente maitea.

Gente orrek be, zerbait adierazi nai dabela.

Eta ezagutzen diran Barrutia eta Peñafloredako kon-
dearen lanak baiño lenagoko dirala Marijesiak. XVII
garren gizialdiko liburuetan billatu izan diralako bertso
orreik.

1699 urtean Jose Lezamiz durangarrak Mexico'n argi-
taratu eban liburu baten, diño Arana Martija'k, Nicolas
Zubia donostiarraren "Doctrina Christiana en Basquen-
ce" aitatzen dala. Eta an agertzen dirala Gernika'n abestu-
ten diran bertsoak, erritik artutako lez, Origaitik teatro
lanen bat egon eikeala artean.

Eta Gernika, Lekeitio, Markina, Ondarroa nai beste
erri askotan abestuten diran kantak euren artean dauken
alkarrizketa eta iruditzeke giroaz oartuta, esan giñei gure
aldetik, oker andirik barik esan be, antziñako antzerki
zarren ondorenak leikezaka.

Nire erriko kantu bat gogoratzen dot. Gabonetakoa
da. Alkarrizketa bizia bertsotan. Lenengotik tokia iragar-
ten dau, esateko, teatru tokia:

Albako untzurrunian
aitz baten ganian
gizon bat arrantsuan
itxas basterrian.
Itandu bear dautsat
ete daben entzun
Belenen gaberdian
zer gertatu jakun.

— Kañabera orregaz
zagozan gizona,
Jaungoikuak daitzula
zuri egun ona,
bart sentidu al dozu
ezenen zaratarik
edo entzun zeruko
aingeruen kantarik?

— Gizon gaste eder bat
egon jantzia zan,
bart gaberdia lege-
emen igaro zan.
Aren kanta soñuak
pozez aditurik
gau guztia emon dot
arain bat bagarik.

Eta orrelaxe jarraitzen dabe beste lau estrofak.

Orra, ziurretik, zela-ala galdu zan antzezki-
zun edo iru-
di baten ondorena. Itxura baten, Ipar aldeko euskaldunen
antzera, guk, garai zarretan euki gendun antzerki edo tea-
tro baten zatiren bat.

BILBO'N ZALAMEA'KO ALKATEA

Klasiku erako antzerki baten aztarnak aztertu doguz.
Azaletik ba da be, Pedro Barrutia, Arrasate'ko eskriba-
duaren Gabonetako Ikuskizuna erabili dogu. Bardin gabo-
netako beste ondakiñak.

Guazen aurrera.

Ba dakigu Bilbo'ko Udaletxeak oiturazko ebala tarte-
tan erbesteko antzerkiekin euskerazko irristada batzuk
egitea.

Oraingoak ez dira asko gogoratzen orretaž

Bilbo'ko Udaletxean gertatu nitzan baten, eta alkate
zanari gogoratu neutsan lengo oitura, zar ori. Ez ekian
alkateak, ez eta beste bere lagunak be.

Zoritxarrez gaur Bilbo'n euskerarik ez dakie askok.
Eta txarrena, zeñek gogoratu be ez. Bestela, garaiz gogo-
ratu ezker, besterik ezean politikagaitik, uste dot euskera-
ri tokirik ez leukioela ukatuko, orain arte ukatzen ez eu-
tsen lez.

Ba zenkien orain 103 urte, Bilbo'ko Udalaren aginduz, Calderón de la Barca'ren "El alcalde de Zalamea" euskeratu zala?

Gure elertiarren sakonetan dabilzan edo ibili diran Mitxelena eta Villasante'ri lan orrek iges egin dautse. Ez da arrigarri. Euskerazko liburu orrek, azalean, erdal kutsua dauka. Delmas'en moldiztegiean, argitaletxean, txukun eta dotore irarrita dago. Letra txiki txikietan igarten da euskeraz dagona.

Orri bakoitzean erdera eta euskeraz dator, euskera-tzaillearen esanez, erdaldunak obeto artu egin bere itzulpena, traduzioa.

Euskeratzaillea Luis Iza eta Agirre, bilbotarra, Santurtzi'n bizi zana. Ain zuzen, Bizkaiko Aldundiak euskerazko katedra bat sortzea pentsatu ebanean, danok dakigu Azkue eta Unamuno agertu zirala leiaketa orretara, eta askoren esanez, ordutik etorkiela Unamuno'ri euskera-rentzako gorrotoa, Azkue'k irabazi eutsalako katedra ori. Baiña gogoratu bear da Azkue eta Unamuno'gaz batera, Luis Itza Agirre au be agertu zala. Eta eurekaz Sabino Arana Goiri eta Eustakio Maidagan be.

Itza Agirre au bilbotarra zan, nai eta Azkue'k, bere paperetan, ondarrutarra zala esan.

Santurtzi'n eskola maixu egon zan.

El alcalde de Zalamea, edo Zalameako alkatea, liburutik, berreun ale argiraratu ziran: l'tik 200 zenbakiekaz.

Onela deitzen da euskeraz: ZALAMEAKO ALKATIA. Komediya iru jutaldetan eta itz neurtuan Pedro Calderón de la Barca'k egiña. Luis de Iza eta Agirrek Aren irudi ikusgarriyenak Bizkaiko itzeran euskeratuak. 1881.

Egia esateko, euskerazko itzulpenak ez dau bertsoen neurririk ez rimarik zainduten.

Ikusten denez, orain eun urte, ta geroago be, gure erri nagusietako agintariak ardura pixkat eukiten eben euskerrari bere bitartez, teatroa bitarterkotzat artuta, lagundu eta ezagutu eraziten.

Azken berrogei urtetan orrelako zerbait gertatu izan ba litz, ez giñake gaur, antzerki kontuan, aurkitzen garean giroan egongo.

Egia esateko, erri guztietako antzerkiak euki izan dituez makalaldi, asperraldi ta berakoak. Illeta asko jo izan da elertietan, literaturetan, librua bitarteko dan arazo guztietan jotan dan antzera. Baiña teatroan eta berari buruz baiña giago iñori ez.

Batzutan agintari eta erriaren laguntasuna falta, bestetan lan eta egillien egokitasun eta gatz. Giroak ez dira beti danak bardiñak izaten.

Inglaterran bertan eunkada luzetan Shakespearen teatroa bizi bizi agertu izanarren, gure aldietan asko makaldua da Olerti-antzerkia. Eta bere kutsuan sasoiko egokitasuna, sasoiko garra, gaurko teknika ta gaurko aranasa emoten jakin ebalako, biztualdi on bat emon izan eutsan Eliot'ek Canterbury'ko Tomas donearen eriotzaz "Katedraleko Erailketa" izenez egin eta gaiaren leku berbertan antzetzu eragiñaz.

OPERAK BIZKAIA: AZKUE TA GURIDI

Bizkaia'n, antzerti lan txikiak gerorako laga-ta, opera kontua billatzen dogu zerbait garrantzizko.

Ortaz Juan Carlos Gortazar'ek lan polita laga eban

"La Opera vasca" izenez.

Bilbo'n operak artu eban garrantziaren zioak dauz: "los excelentes compositores del momento, la existencia de una Sociedad Coral de Bilbao, que con su entusiasmo hizo posible la presentación de sus obras; pero sobre todo el fondo de arte popular en que tales obras se basaban, lo apropiado del euskera como soporte de la música lírica y la riqueza melódica de la música vasca, con una novedad rítmica si rival, el zortzico."

Euskerrari buruz au diño: "un admirable vehículo de la melodía quizá no superado por ninguna otra lengua de las que emplea el teatro lírico".

Arana Martija'k, bere "Opera vasca en Vizcaya"n diño: Define claramente Cortázar las coordenadas en que ha de entenderse construida la ópera vasca; tema histórico o costumbrista vasco expuesto en euskera, musicado por compositor vasco que lleva dentro de sí esa especial inspiración que le presta el conocimiento del acervo musical popular.

Eta Gortazar'ek diño, XIX garren gizaldiko operak, ez eukela betetasunik, eta ez eukela giroko teknikarik be.

Gure gizaldira etorri aurretik, gogoratu bearreko da orraitik Juan Crisóstomo Arriaga "Los esclavos felices"en egillea, amairu urte eukazala.

Gogoan eukiteko da baita Cleto Zabala. "La hija del pescador" egin ebanean, Aldundiaren laguntza artu eban musikan jarraitzeko.

Arana Martija'k au diño: "Es curioso constatar que, por lo que a ópera se refiere, son Bilbao y Durango los dos núcleos casi excluyentes. Así encontramos en Durango a Valentín María de Zubiaurre, que estrena en Madrid "Don Fernando el Emplazado" con otros formados por estudiantes vascos (1871) y "Ledia", vasca en el tema, pues la acción discurre en la batalla de Roncesvalles."

De Abadiano era Nicolás Urien, quien estrenó en Barcelona "Una noche nel desierto", 1895, y "La Atlántida", en 1908.

Kontuan eukiteko da baita Bilbo'n antzoki ugari egon izan dirala, operak eta bestelako lanak agertu al izateko eran. Ala Gayarre teatroa, Circo del Ensanche, Nuevo Teatro Arriaga, Novedades, Romea, Trueba, Coliseo Albia eta Campos Eliseos.

Baiña euskal operaren bizitasuna 1894 urten inguruan asten da. Eta bultzaillea, ain zuzen, euskal idazle andi bat: R. M. Azkue.

Bera izan zan 1895 urtean "Vizcaytik Bizkaira" egin eta agertu ebana. Lekeitiarra zan, Azkue legez, Buenaventura Zapiain. Onek "Txanton Piperri" agertu eban 1899 urteko Errege egunean. Au jaiotzez lekitiarra eta bizimoduz donostiarra zalako, Bizkaiko Aldundiak eta Donostiako Udaletxeak lagunduta ibili ziran ikastaroak sakonduten.

1909 tik 1914 bitarteko bost urteetan, Bilbo'n zortzi opera aurkeztu ziran lenengoz. "La primacia que había ostentado a fines del siglo anterior San Sebastián, pasa a la capital vizcaina sirviendo de puente el vizcaino Zapiain".

Bitarte orretan letra egille on bat agertzen da: Alfredo Etxabe. "El de Iturrubide" deitzen eutsen Bilbon. Eta bera-gaz batera Jose Power. Oneik erderatu eben "Maitena" eta Bilbo eta ingurutan izugarrizko garaitza lortu eban lan orrek.

Gero "Lide ta Ixidor" agertu zan. Arana Martija'k diño: La fama no ha sido justa con esta delicada partitura, como tampoco con su autor Santos Inchausti". Etxabe're-na zan libretoa.

Etxabe berberak egin eban baita MIRENTXU. Jose Arrue frantziskotarrak euskeratu. Eta Guridi'k musikaz apaindu. 1910'ko Maiatzaren 31'an emon zan lenengoz, eta Bagilla'ren barruan beste bost aldiz emon bear izan zan.

1911'n, ORTZURI Azkue berberarena. "Partitura interesante que sorprendió al público por su novedad. Melodías lentas, melancólicas, tratadas de forma severa sin desvirtuar su aroma popular, esan eban beragaitik Gortazar'ek.

1914'en Azkue'k beste lan bat agertzen dau: "UR-LO". Barcelona'ko orkesta ta guzti. Alaz eta... "A pesar de todo este montaje, el estreno fue un fracaso. Según los críticos la obra no era para entendida en una sola audición a causa de su gran complejidad musical. Azkue se había dejado de llevar por la seguridad y ampulosidad de la escuela alemana en que había bebido y soportó un tremendo golpe con el inesperado fracaso del debut de esta ópera".

Gero, 1920'n Jose Mari Arroitajauregi'k egindako berbakín, Guridi'k "AMAYA" agertu eban. Ba dakigu bere aldeko kritika ona izan zala. Norbaitek esan dau "AMAYA" geratu dala euskal operaren agergarri berezitzan. "AMAYA" se ha convertido en el prototipo de ópera vasca".

ANTZERKI SOILLA

Opera eta musikadun antzerkiak laga eta guazen gure-ra, antzerki zeatzera.

Euskal Antzertian Soroa (Marzelino) dala diño Mitxelena'k aitatasunaren jaube eta nortasunez agertu bear dana.

Au idatzi eban "Egan"en: Orain dakigunez ez da izan Soroa euskal antzertiaren azia erein ebana, ohore ori aramaiotarra dan Barrutia'ri dagokiola; baiña bai euskal antzerki barriaren aitatasuna, eta antzerki barri au besterik ez da oraiñarte Euskalerrian antzerki iraunkor lez eza-gutu.

Ezin geinke esan Soroa antzezleri andi izan zanik, beste errialde batzukoekaz bardindu ezkeru, baiña bai Soroa'k bere giroko utsunea bete ebala, garai aretan erri-ri atsegin izan jakon bestean.

Soroaren lanak, danak, errezak dira. Gogoratu, egiña-lako ordenan, Iriyarena; Anton Kaiku; Gabon; Au ostatu-ba; Lapurrak, lapurrak; Alkate barriya; Barrenen arra;

Urrutiko intxaurrak; Gorgonio'ren estutasunak; Abe isti-llubak; Azak eta naste; Ezer ez eta festa; Baiña zein naiz ni?; Auxen da eguna...

Eta Bizkaia'n?

Lotsatu egiten naz gure gurasoen garaietan, euskal antzerki lez "Cuestiön de calabaza" erabilten zala entzun edo irakurten dodan bakoitzean. Lotsatu benetan. Ortik ikusi geinke euskal antzerkirik euki ba dogu edo ez. Baiña Unamuno'k ori eskiñi eutsan bere erriari.

Lengoetan ez dogu zer gogoratu asko. Azkue bat.

Beste abade bat: Ortuzar, Robustiano.

Pekatu bat dauka, antzezleriak, personaiak erabilten ez daki, baiña akats ori laster estalduten dau berak izkun-tza eta gizonen esakera jator eta barru-barrukoei emoten dautsan gatz, benetako izate eta etorritz. Batez ere "Torreteruen", "Ondo pentsata zauz", eta "Txalupetxien" edonun agertu leikezan entremes irritsu ta ikusgarriak dira.

Ia sasoi berean Jemein Errazti, Keperin, antzerti bat edo bestegaz, abertzaletasun txingarrez.

Eta besteak?

Gure arteko lan asko ez doguz ezagutzen izenetatik ezik. Euskaldunen pekatua da ori. Gure arinkerizko peka-tu astuna. Alaz eta goitik ezarrita.

Eta orrela, izenetatik edo entzunetatik edo irakurkizun arin batetik iñoren lana epaitutea, juzgadutea, lotsabako ausardikeri edo zentzunbako burubidea litzake.

Ondorengoak, euskaldun jarraitzen ba dabe, itz egingo dabe gutzaz.

Nik ba dakit Eusebio Erkiaga batek ba daukala poesi miña antzerki bigun eta fiñak egiteko.

Nik ba dakit Ziarsolo batek euki izan dabela gatz ta erri ezaupidea teatro errikoi eta jatorra egiteko.

Nik ezagutu bear dot Aresti batek euki ebala giarra eta kaskarra teatro gordin eta kezkatu bat egiteko, eta bide barrietan sartu nairik.

Baiña betoz barriak. Adoretu, zirikatu, beartu, estutu daiguzan lanera. Gizaldi askotako utsunea beteten alegin-du gaitzan.

Eta gain gaiñez, antzeztu daiguzan egiten diran lanak. Antzeztu ezik, alperrik da idazleei eskatzea.

Or be ba dago gure nagikeriaren aitzaki pixkat.

Urtetan egin dana, gordeteko izan da. Ez antzeztu eta ez argitaratzeko, eta ori, ez da ain zuzen iñorentzat akulu edo ziri.

Ikus daiguzan azaletik, Bizkaitar idazleen zerrenda eta lanak. Or dagoz. Zerrenda onetan ez dagoz danak. Ba dakit. Baiña alegindu izan naz batetik edo bestetik atara eta batzen. Eta Bizkai'ko antzertiaren asiera baterako ba dira beintzat.

BIZKAIKO ANTZERTIA

Egilleak eta lanak

Pedro Ignacio Barrutia

1682-1759

Aramaio - Arrasate

“Gaboletako Ikuskizuna”

Argitaratzeak: “Euskal Herria”, 1874

“Euskalzale”, 1897

“Auspoa”, 1965

Araba Aldundia, 1983

Latxaga, 1983

Iza eta Agirre, Luis

1837

Bilbo

Santurtziko irakaslea

“Zalemeako Alkatia”

(Aren irudi ikusgarrienak Bizkaiko itzeran euskeratuak 1881.)

(Bilbo'ko Udalak Calderón de la Barca'ren eun urtegarrena ospatuteko agindua.)

Azkue, Resurrección María

1864-1951

Lekeitio

“Vizcaitik Bizkaira”

“Sasi eskola” (Txikientzako)

“Aitaren bildur” (Txikientzako)

“Orzuri”

“Urlo”.

Ortuzar, Robustiano

Bermeo. 1883-1929

“Oroigarriak” (Bermeo'ko oituran, ango euskaleran)

(Torrontereun)

(Ondo pentsata zauz)

(Pitxar bete ur)

(Txalupetxien)

(Sorginkerizko epaia)

(Doniane bezperako pozak)

Evaristo Bustintza “Kirikiño”

Maria

1866-1929

“Anton Berakatz”, 1914

“Txomin Arraio”, 1912 (Jose Elizondo'ren komeria, bizkaieratuta)

“Meza Barriya” (Abelino Barriola rena, bizkaieratuta)

“Lelo” (Alfredo Etxabe'ren iru ekitalditakoa, euskeratuta)

Cortés Navarro, Miguel

(“Lope de Aulestia”

“Txikia”)

1938'n il zan

“Itxasondo”, 1911 (Intxausti'ren miskaz)

Bilbo, 30X-1910

“Estropadak”

“Idekuak alkarrekin”

González Etxebarri, Luis

“Aizkibel dar Bingen”

Ubidea.—Argentina'n il

“Jai alai”

(1915'ko Euskeltzale Bazkuna'ren sariketan saritua)

Arrozpide Omatgojeaskoa, Jon Bta

Busturia, 1869-1952

“Meza osteko jaia”

Garro, Bernardo. “Otxolua”

Mundaka, 1891-1960

“Leia” Colombia'ko idazle batena, euskeratua

“Maturiñe'ren kapoiak”

Leon Leon azparnetarrarena (1896-1962)

Oar-arteta, Joseba Andoni

Axangiz, 1900-1980

Viar Nicolás

Larrakoetxea, Bedita

Zeanuri, 1894

“Sasi eskontza” (1934)

“Euzko Gogua”, Jose Altuna’k euskeratua

“Nerea”, 1912 erderaz

“Maite”, 1913 erderaz

Shakespeare’ren lanen euskeratzaillea.

Makbet (Macbeth), 1957 - Euzko Gogoa’n

Lear Errege (King Lear), 1958 - Euzko Gogoa’n

Ekatxa... (Tempest), 1959 - Euzko Gogoa’n

Komediak A-8 komedi. Gasteiz, 1974

Komediak B-6 komedi. Gasteiz, 1974

Odol antzerkiak. 7 antzerki Gasteiz, 1976

“Erromi ta Yuletzu”

“Lear Errege”

“Otel, Binixako mairua”

“Atenai’ko Timon”

“Macbeth”

“Hamlet”, Danemarka’ko errege semen

“Toril eta Kerside”

Odol antzerkiak B. Gasteiz, 1976

“Kinbelin”

“Juli Kaisar”

“Andoni ta Kelopater”

“Koriolan”

“Tita Andornika”

“Perikel, Tiro’ko errege”

Dramak, Gasteiz, 1977-10 antzerki.

(Nolako idazle? Trebe ta ernea noski. Ondo dakizki euskerak dituen barren-antzeri ta korapilloak. Izango zituen nunbait bere buruko miñak Shakespeare itzultzean, baiña bere trebetasunari esker, lerdengi azpiratu zizkigun aurrez-aurre izan zituen eragozpenak oro.

Aita Santi Onaindia’k)

Agirre tar Txomin

Ondarroa, 1864

Zumaya, 1920

Ametzaga Bingen

Algorta, 1901

Campion’en “Larraldeko Lorea” euskeratu (Gipuzkeraz)

“Hamlet”

“Macbeth”

“Julio César” (Shakespeare’renak)

“Rubaiat” (O Kayyan’ena. Persitarra)

Arriandiaga, Manuel

Elantxobe, 1876-1947

Emiliano Arriaga’ren LEKOBIDE euskeratu eban

Jemein Lanbarri Zeferino

Bilbo, 1885-1965

“Oleskari Bilak”, 1915.—Bere emazte Karmele Errazti’gaz batera egiña

Garitaoanindia tar Bitor

Zaldibar, 1876-1929

Gipuzkeraz idazten eban

“Iziartxo”, 1918.—Bi ekitalditan

“Aitona ta billoa”, 1921.—Bi ekitalditan

“Ongillearen sariya”, 1922.—Bi ekitalditan

- Etxeita Jose Manuel*
Mundaka, 1842-1915
- Ziarsolo Gironella, Manuel*
Bilbo, 1902
- Arenaza Josu*
Bilbao, 19130
- Alonso Ariño, Santos*
Elorrio, 1915
- Erkiaga, Eusebio*
Lekeitio, 1912
- Ibiñagabeitia, Andima*
Elantxobe, 1907
- Lasuen Balendin*
Zaldibar, 1924
- Onaindia, Santiago*
Amoroto, 1909
- Andrinua, Martzel*
Markina, 1930
- “Urikoa” Anton Trueba’reen lana euskeratua.
- “Eguberri aizeak” (Gabonetako Ikuskizuna, Barrutia’reen lanetik sortua)
“Agur Donibane”
“Goiz otoia”
“Sorgiñak Etxaburun”
“Paris’en gogo txarrez”
“Eztegu ta erdi”
“Bermioko portuna”
“Katalin Errotako”
“Jai arratsalde baten”
“Afal orduan”
“Artzaiñaren ametsa”
“Atsoa gaztetu bear dogu”
“Saku jantzia”o
- “Gogozar berbizkunde goizian”
“Gabon gabonetan”
“Eguberri aizeak” Itz neurtuz
(Lan oneitako geienak irudi antzekoak dira, “Txinpartak” taldearentzat gertuak.)
- “Eguen zuri”. Labaien’en “Ostegun gizona” bizkaieraz
- “Errugabea” (Iru ekitalditan. Argitaratu barik)
- “Antzerki jaian izan naiz”. Bakarrizketa, 1934. “Antzerti”
“Askatasun bidean” (Estampa antzekoa). “Euzkadi”n agertua
“Sinisgogorra”, 1951.—Donosti’n satirua. Ekitaldi bakarrekua, gero iru-
tara aldatua
“Pake eguna” (Gabon girokoa), 1956.—Ekitaldi bakarra
“Kanpaien atsekabez”, 1959.—Bedowa’n saritua. Lau unetan
“Oññazez” Iru ekitalditan. Patxi Bengoa’reen musikaz
“Alperrontzi”, 1959. Txinpartak’entzat egiña. Laburra
“Gau batean”. 3 ekitaldi labur. Gizarte girokoa, 1970
“Gora Arratia”. Bonifacio... ¡OJO!, NO SE ENTIENDE
- “Abere indarra”.—Jacinto Benavente’reen “La Fuerza bruta”
- “Garbiñe” (Argitaratu barik). Ba dago beste “Garbiñe” bat, Catalina Eleizegi’reña
- “Jainko antzerkia” (Dante’reen “La Divina Comedia”)
- “Zoro etxean”,
“Satanas sotanaz”
“Au dok umoria”
“Batek ba daki”. Danak jostirudi txikiak

Aresti Gabriel

Bilbo, 1933

“Mugaldeko Herrian Egiñiko tobera”, 1961

“Etxe aberatseko seme galdua” eta “Maria Madalenaren seme santua”, 1962

“Eta gure eriotzako orduan”, 1964

“Beste mundukoak eta zoro bat”, 1964

“Justizia txistulari”, 1967

Eta euskeratuta: “Xistima zorionsu bat”, Bertol Brech’ena

Sota, Manu

Ondarreta, 1897

Biarritz’en il

“Negarrez igaro zan atsoa” (Altuna tar Joseba’k euskeratua)

“Iru gudari”

“Libe” Arana Goiri’k asi eta Sota’k amaitu

“Buruzagiak”. Atal bakarrekoa. (Altuna’k euskeratua.)

“Gosemin eta azken ordua”. Atal bakarrekoa

“Urretxindorra”

“Itxaro Ixarra”

“Siaska onduran”

“Estropadiak”

“Oztin”. Altuna’k euskeratua

“Bihotz apala”. Paul Giltsou’k euskeratuta

“Antzerti”k au idatzi zan beragaitik: “Cocteau euskalduna deitu genezakioko Sota Aburto idazleari. Antzerkirako doai berezia du ta euskeraz idazten asi danezkero, ez dezala aztu gure Antzertitxoa”.

Zubikarai Bedialauneta, Agustin

Ondarroa, 1914

“Aberriagaz bizi”. Umeentzat. “Euzkadi”n argitaratua

“Illobearn indarra”. Andientzat. “Euzkadi”n argitaratua

“Itxas lapurrak”. Andientzat. “Euzkadi”n argitaratua

“Itxas ertzeko itsu mutilla”

“Itxasora”. Biarritz’en satirua, 1945

“Umetako kezkak” (Umentzako)

“Aingira kumak” (Umeentzako)

“Ikas-Mikas” (Umeentzako)

“Seaska inguruan” (Gabonetako irudiak), 1956’en en Donostia satirua.

(“Egan” en argitaratua)

“Jaunaren Bideetan” (“Egan” en argitaratua)

“Iru Alaba”, 1963’ko Toribio Alzaga saria. “Euskera”n agertua

“Kresaletan”. Gregorio Solabarrieta’ren musikaz

“Mariñelak”. Jose Mari Altuna’ren musikaz

“Gizon on eta andre erre”, 1967, Toribio Alzaga saria

“Bizi garratza”, 1967, “Gipuzkoa” sarietan aipamena

“Lurrunpena”, 1968, “Gipuzkoa” saria. “Egan” en argitaratua

“Errekonduan”, 1969, “Gipuzkoa” saria

“Mendu zarrak”, 1969, Toribio Alzaga saria

(“Au eta Bizi Garratza” “Irakur Sai liburu sortan argitaratu ziran biak liburu baten”.)

“Loialako Semia”

“Niz naz Kapitan pilotu”

“H. Opokoa H”

“Kiritirrika”

“Gernika Aritz aurrean”

“Zurrukutun”

“Zimur Zimelak”

“Saliña Saliña”

“Atako bandan”

Orre gaiñera antzerkirako egokitu: “Atxuriko Millagrua”, Kirikiño’reña. Kirikiño’reñ omen egunerak “Urruzuno’reñ umores” Urruzunoren omenaldirako.

“Mendi eta Itxaso”. 1983’ko Markiña’ko Lore Joketan lenen saria.

Xabier Gereño

1924. Bilbo

“Euskal ikastola”, 1972'en “egan”en agertua

“7 Teatro lan”, 1979'en argitaratua:

“Dentistaren konsultan”

“Ipurdia erakutsi nahi ez”

“Hotel bateko gelan”

“Aspirinarik ez”

“Don Afrodisio legegizon famatua”

“Nobi bat behar dugu”, 3 atal

“Nor da errudun”, 3 atal

“8 teatro lan”, 1982:

“Ez da seguru”

“Organizazioa”

“Tiburtzio sajentua”

“Ezkondutua bai, baiña norekin”

“Pitrimitrof'en etxea”

“Kalifornia-ko urte meztetan”

“Restaurantean”

“Mozkortia Komisaldegian”

Etxabe, Alfredo

Bilbotarra.

1898'n asi zan antzerkia idazten

“El de Iturrigorri”

“La Horda”

“Lenago il”, Aureliano Valle'ren musikaz

“La Alianza republicana”

“Bide Onera”, 3 atal. Aureliano Valle'ren musikaz

“Maitena”. Decret'ek egin eta Colin'en musikaduna

“Lide ta Ixidor”. Insausti'ren musikaz

“Mirentxu”. Guridi'ren musikaz

“Peru Gixon”. Atal bitan. (Beren onena)

“Lelo”, drama. Iru ekitaldi

“Matilde”, drama. Iru elitaldi

“Pedro Mari”, melodrama, 4 ekitalditan. Arturo Campion'en eleberri batetik egiña.

EL ALCALDE DE ZALAMEA

Comedia en tres jornadas y en verso por
D. Pedro Calderón de la Barca

Sus principales escenas traducidas al dialecto bizcaino del
del Euskara por
Luis de Iza y Aguirre.

De este libro se imprimieron doscientos cuerpos numerados desde 1 a 200, a costa de la Noble, Invicta y Benemérita Villa de Bilbao.
N.º 115.

ZALAMEAKO ALKATIA

Komediya iru jutaldetan eta itz neurtuan
Pedro Kalderon de la Barkak egiña.

Aren irudi ikusgarriyenak Bizkaiko itzeran euskeratuak.
Bilbon.
Juan E. Delmasen moldiztegian
MDCCCLXXXI (1881)

Advertencia preliminar

Habiendo acordado el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao la versión y publicación en lengua euskara de las principales escenas de “El Alcalde de Zalamea”, como uno de los medios de honrar la memoria de D. Pedro Calderón de la Barca en el aniversario de la muerte de aquel insigne poeta, me dispensó la honra de confiarme aquella versión.

Como se trataba de conmemorar por mi pueblo natal la esclarecida memoria del insigne dramaturgo español en la antiquísima habla de los primeros pobladores de España, era caso de conciencia para los que cultivamos la literatura euskara darla a conocer en formas distintas a nuestros hermanos, que casi la desconocen, y así es que, como bilbaino y euskarista, aunque de los más humildes, me he creído en el deber de aceptar con gusto tan honroso cometido.

Expuesto lo que antecede, voy a consignar algunas advertencias que sirvan para la mejor inteligencia de la versión, no sin empezar por la de que la escasez de tiempo mediado entre el acuerdo de la corporación municipal y su ejecución ha impedido así al traductor como al tipógrafo desempeñar con mayor lucimiento su encargo.

Al dar la preferencia a "El Alcalde de Zalamea" entre las comedias de D. Pedro Calderón de la Barca, se tuvieron en cuenta las especiales condiciones de esta obra, a la vez que la estructura de la lengua euskara. Ofrece "El Alcalde de Zalamea" caracteres de lugar que dicen muy bien con los que todavía por fortuna nuestra se conservan en esta tierra. Tiene además la ventaja de no ofrecer dificultades serias para la versión que se trataba de emprender, pues de todos es sabido que el euskara, encerrado como ha estado entre estas montañas y usado hasta hace un siglo únicamente por la gente del pueblo, a causa de la inquina y ojeriza con que era mirado el resto de la península, no ha podido desenvolverse y enriquecerse en la población en que se enriquecían y desenvolvían las *erderas* (1) castellana y francesa.

He escogido para la versión el dialecto bizcaino por ser la representación de Bizcaya la que tributa este homenaje de admiración al gran poeta y por ser a la vez el dialecto que mejor poseo de los cuatro en que la lengua euskara se divide.

Como esta lengua es por desgracia casi desconocida de los hombres de letras españoles, he procurado hacer la versión lo más literalmente posible con el objeto de que pueda servir de estudio comparativo. No se extrañarán por tanto los maestros del euskara si hallan alguna que otra frase violenta o poco armoniosa.

Aunque entre nosotros no hay todavía una Academia de la lengua, la generalidad de los que en euskara escribimos, hemos adoptado, por considerarla la más conforme a su índole, la ortografía admitida y enseñada por mi esclarecido y generoso maestro, el por tantos méritos ilustre príncipe Bonaparte.

La *v* es desconocida en nuestro alfabeto, así que sólo hacemos uso de la *b*.

Empléase la *k* en sustitución de la *c* y *q*.

Usamos la *g* en *ge*, *gi*, con el mismo sonido que tiene en *ga*, *go*, *gu*.

La *h* es desusada por considerarla inútil.

Escribese *z* en vez de *c* antes de *e*, *i*.

Antes de *b* y *p* empleamos *n* en lugar de *m*, como igualmente usamos la *rr* en todos los casos de sonido fuerte, debiendo tenerse en cuenta que nunca va como sonido inicial si no es precedido de una *e* por eufonía.

Los sonidos que representan por medio de *x*, *ts* y *tz* requieren la viva voz.

El artículo, las posposiciones (preposiciones del castellano) y el relativo verbal van siempre como subfijos, formando una sola voz con la palabra a la que se unen.

Nuestra conjugación, que admite a la vez las flexiones de la declinación, tienen desinencias distintas para el trato cortés y familiar y distintas para expresar el masculino y femenino de este tramo.

Las palabras regidas proceden a las regentes.

No permitiéndome la índole de este trabajo ser más extenso, remito a los que quieran hacer un estudio de nuestra lengua a las obras del P. Larramendi, Astarloa, P. Zabala, Príncipe Bonaparte, Inchauspe, Duvoisin, Van Eys, Manterola, Campión y de otros escritores españoles y extranjeros que no recuerdo en este momento.

Santurce y mayo de 1881.

Luis de Iza y Aguirre

EL ALCALDE DE XALAMEA

ZALAMEAKO ALKATIA

(Erabilten dauzan berba batzuk)

Albaro de Ataide, euntariya.

Lenengo jutaldia.

Ekarri jaskaya.

Ostatumaitz.

Bada, zelan areek orratuko ditut eta zelan ni orratuko naz?

Esan egik ire bizi artetz.

Zalduna nazala bost edo sei milla errialen bitartez.

Naidok, oinkatua izan arren, ertaldichu bat niri entzun? Ule gabea da gizon bat billa urrian eta areek iragoturik ipinten dau ulerantzi bat. Onek, guztien ustian urteten dau ulegebe artetik? Ez.

Zuzendu bersiua, oskaitu bere aldetik, eta eguzki, izotz eta aidiaren ekaitzat alderatu.

Utsaldia.

D. Alvaro de Ataide, capitán.

Jornada primera.

Traer la ropa.

Hospedaje.

Pues ¿cómo puedo excusarlos ni excusarme?

Dime por tu vida.

Que soy noble por cinco o seis mil reales.

¿Quieres, aunque sea trivial, un ejemplillo escucharme? Es calvo un hombre mil años y al cabo de ellos se hace una cabellera. Este en opiniones vulgares, ¿deja de ser calvo? No.

Enmendar su vejación, remediarse por su parte y redimir las molestias del sol, del hielo y del aire.

Defecto.

Eldu naz bada ain'ordu onian, guztiok ichiko ditut gaur
naikidaturik.

Onguan banatuko dabe.

Euntariak agindu deust liskartia asmau naiyala.

Zaintegi.

Dakizu osartu biar dituzuzala, zariana zarialko, astun
oneek?

Erregeri ondasunak eta biziya emon biar jakoz,
baña onoria arimiaren onkarria da.

Burkoya da landerra. Nik bestian
botaten ditu birauak.

Burutiya da Lope a.

Lorortu.

Zeruak emon dagidala osartia.

Amodiyoaren sumin, zortasun bat da.

Gaitzurre.

Albiriszariyak.

Iomena.

Bilguma Echea.

Esker nachako oneratu nai nabinari.

Gertoya.

Duda bagarik landerra kexatu da.

Aldandetu.

Gizon prestua naz ni, bada nire
jayotza beraztu al izan ba neu,
ez neban itziko (Jainkuak dakust)
nigan artukitz bat, utsalde bat
nire oparen andiyana ordetu al leikiyana.

Beti emen neulakuan artian
beakurtatua izan naz.

Nire alabia azia izan da,
nire ustian, munduko arazge,
bertute eta iomen obiaguan.

Esanan ontzugañian.

Chukatu ez daigun
ire guztian basuan:
itzi daigun zerbait osarrantzat.

Oskaitza millatutia nire laiduari,
mendekua da, ez da oskaitza.

Alagoza.

Esangia.

Justiziyan artez izango bada,
ez daukazu arautalik.

Bada Jaungoikua dan lez
goguan daustazula.

A tan buen tiempo he llegado, satisfaré a todos hoy.

Desta vez me lo estropean.

El Capitán me mandó que finjese la pendencia.

Cuerpo de guardia.

¿Sabéis que estáis obligado a sufrir, por ser quien sois, es-
tas cargas?

Al Rey la hacienda y la vida se ha de dar;
pero el honor es patrimonio del alma.

Testarudo es el villano. Tan bien jura
como yo.

Caprichudo es el D. Lope.

Jardín.

Los cielos me den paciencia.

Es una furia, un delirio de amor.

Peligro.

Albricias.

Honor.

Casa del Concejo.

En extremo agradecido estoy a quien solicita honrarme.

Lance.

Sin duda se ha querellado el villano.

Alterarse.

Yo soy un hombre de bien,
que a escoger mi nacimiento,
no dejára (es Dios testigo)
un escrúpulo, un defecto en mí,
que suplir pudiera la ambición de mi deseo.

Siempre acá entre mis iguales
me he tratado con respeto.

Mi hija se ha criado, a lo que pienso,
con la mejor opinión,
virtud y recogimiento.

Para abono desto.

No apuremos
toda la ponzoña al vaso;
quédese algo al sufrimiento.

Buscar remedio a mi afrenta
es venganza, no es remedio.

Cantidad.

Refrán.

Si por justicia ha de ser,
no tenéis jurisdicción.

Pues juro a Dios,
que me lo habéis de pagar.

Mezututen deitsut euntari
biziya nazala.

Irain onen kexia Erregeari emongo dautsat.

Ori da guztiz eraldeztua.

Gorgollatu.

Ez dakizu Erregeren ekurtian duala?

Onetan egokatu nago.

Nik erabagi dot emen auzijoaita.

Auzijoaita.

Uboilla.

Jauna, au da munduak ikusi daben
lander baten langoitia andiyena.

Leyargiya.

Arautzia ondo danzkiturik dagon
auzijoaita au, eriazen diña,
batzai bat ostutiarren,
basuan a borchatu, eta ez nai
ezkonduagaz, bere aitzak erregu
ari egin izan arren.

Ondo dago erabakirik; baña ez
daukazu alik osekiteko
beste irupenari dagokion erabakia.

Ezin jauna biyaldu nei, zegaiti gure
artian ez dagon lez entzunde bati baño,
berak osakitzen ditu dagoazan erabaki
guztia eta orregaitik osekiturik dago.

Orren arduria daukazu?

Jauna nola zaldunak ain ondo bizi diran gure artian,
ez dau ikasi gorgollatuten daukagun borruak.
Eta au illaren mendeari deitsen kexia da,
eta bera kexa dedin artian, bestiei ez deitse izererez.

Ondo emonik dago eriuu.

Ez zan obe nigaz berba egitia,
preso artua emonaz, eta
zure albiaren iomena eskairitua?

Sartuko da komentu baten;
bada berestu dau eta dauka
leñuargian begiratuten ez daben senarra.

Yo os apercibo
que soy un capitán vivo.

Al Rey desta sinrazón me quejaré.

Eso está muy puesto en razón.

Degollar.

¿Vos sabéis que a servir pasa al Rey?

Estoy en ello empeñado.

Yo por acá he sustanciado el proceso.

Proceso.

Cañón.

Esta es, Señor, la mayor temeridad
de un villano, que vió el mundo.

Luminaria.

Este proceso, en quien bien
probado el delito está,
digno de muerte, por ser
una doncella robar,
forzarla en un despoblado,
y no quererse casar
con ella, habiendo su padre
rogándole con la paz.

Bien está sentenciado; pero vos no tenéis
autoridad de ejecutar la sentencia
que toca a otro tribunal.

Mal podré, Señor, remitirle, porque
como por acá no hay más que una sola
audiencia, cualquiera sentencia que hay,
la ejecuta ella, y así está ejecutada ya.

¿Eso dudáis?

Señor, como los hijodalgos viven tan bien por acá,
el verdugo que tenemos no ha aprendido a degollar,
y esa es querella del muerto, que toca a su autoridad,
y hasta que él mismo se queje no les toca a los demás.

Bien dada la muerte está.

¿No fuera mejor hablarme,
dando el preso y remediar
el honor de vuestra hija?

En un convento entrará;
que ha elegido y tiene esposo,
que no mira en calidad.

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

Len Frantzi'n lez, orain Irlanda'n tiroka erabiliak izan dira Ondarru'ko arrantzaleak.

Irlanda'ko eta Frantzi'ko uretan sartu omen dira gure arrantzaleak, andik al daben guztia lapurtzeko.

Besteren landan besterena dana arrapatzera sartzen dana, lapurra da, zalantzarik gabe. Baiña ur aiek Irlanda'renak eta Frantzi'renak al dira? Ur aietako arraiñak ere bai?

Gaurko Frantzi eta Irlanda Laterri edo Estadu izan aurretik, gure arrantzaleak joaten ziran ur aietara. Beraz, Frantzi'rena edo Irlanda'rena baiña aundiagoa da, ur aietan arrantz-egiteko, gure arrantzaleen eskubidea.

Berreun "milla"etara, Laterri oiek, beren nagusitza zabaldu dabela? Ta... nork eman dautse ori egiteko eskubidea? Jaungoikoak? Nor besterik izan leiteke itsasoen jabe? Ez beintzat gizonak! Eta gizonak, beren Laterrien bidez, itsasoetako jabe egiteko almena bailebe ere, leendik itxasoetako zakoetan beste gizon batzuek arturik lekioen eskubidea begirunez onartu beako leukee. Eskubide ori "errespetatu" bearra izango leukee.

Ontaz beste egun batean mintzatu gintzazan-eta, gaurkoz esan dagigun Espaini'ko Jaurlaritza sozialistak ez dau la eskotarron eskubide ori babesteko ezer egin. Ardura Euzkadi'gaitik Espaini'ri!

Kikildu egin da gaiñera Espaini'ko Jaurlaritza sozialista. Len Frantzi'ren aurrean baiña oraingoan Irlanda'ren aurrean,

Frantzi'rekingo arazoan, Alfontso Gerra'k esan eban beintzat "arrantzako eztabaidak ez dirala kañoika erabakitzen", eta Pellipe Gontzalez'ek ere egin eban bere protestatu edo osteketa koxkorra: apala eta mottela, bai; baiña zerbait esan zuan ala ere. Oraingoan, Espaini'ko izparringi sozialistak Irlanda'ren alde eta euskotarren aurka jarri dira; eta baita Jaurlaritza sozialista ere. Ikus:

— Espaini'ren, Irlanda'ko enbaxadaria Irlanda'ko Jaurlaritzaren alde mintzatu zan, irlandarrek iñoena egia ote zan ala ez aztertzeke astirik artzeke. Eta gezurra da noski irlandarrek iñoena.

— Irlandarrek, euskotarrak Irlanda'ko uretan ARRANTZAN zebiltzala esan eben. Euskotarrek berriz,

itxasoko eraso zakarretik iges sartu zirala arâ, esaten dabe. Zalantzarik gabe, euskotarrek diñoela egia dirudi; alako itxaso zakar-zakarrean arrantz-egitea gauza zaillegia bait da.

— Irlandarrek euskotarrei aurretik era paketsuan dei egin eutseela oiur dagite. Euskotarrek, aurreneko deia kañoiena izan ebela erantzuten dabe. Beste puntu guztietan irlandarrek gezurra diñoelako, badirudi ontan ere euskotarrek dabela arrazoia. Espaini'ko enbaxadariak, berak ere gure arrantzaleei dei egin eutsela eta auek ez eutsoela obeditu, esan eban irratiz. Gezurra ote diño Espaini'ko enbaxadariak ere?; ala, norbaitek atzipetu egin ote dau?

— Ondarru'ko ontzitxoak, talka-jo nai izan ebala irlandakoa, esan dabe irlandarrek, eta orrelako gezur mardulik ez dau oraindik iñork esan. Arrantzako ontzi bare eta ibillera geldiko bat, guda-ontzi arin eta izkilluz betetakoa talka-jo naiean ibilli! Entzun irakurle. Nik esango dautsudaz gauza arrigarriak: Maskulu bat erbi baten atzetik laisterka ibilli da; amar aldiz gaiñera!, San Mames'ko zelaiean, erbi ura adarka lurrera jaurti naiean. Erroma'ko Donekapa'ren Enparantzan, antxume txiki batek, adarrik gabe, tankaka lurrera jaurti nai izan du, amar aldiz, adar luze zorrotzez ornitutako zezen kankallu galanta. Ori sinisterik ez dagoala? Bâ, ori sinisten dabeneke bakarrik sinistu daikeek irlandarren ipui ori.

— Irlandarrek esan daben guztia egia balitz ere, ez litza-ke, kañoika jendea iltzeko, naiko arrazoi izango. Laterri batek badauz beste Laterri baten aurrean bere eskubideak babesteko era egokiagoak. Mirariz salbatu dira Ondarru'ko arrantzaleak. Irlanda'ko guda-ontziak ez eban beintzat aiek uretik ateratzeko ezer aundirik egin! Irlanda'ko uren mugetatik kanpora jausi zirala ondarrutarrak? Jendearen bizia salbatzeko, ez itxasoak, ez legorrak, ez dabe mugarik.

Ontaz ere, ez dau oraindik espaini'ko Jaurlaritza sozialistak ezertxo're esan! Esango al dau, biar ez bada etzi, esango al dau zerbait azkenean!!!

Latiegi'tar Bixente

ONDARRETA ALA AREETA?

Eztabaida onetan, biderik egokiena lortutzeko, izen orreik nun erabilten dura ikusi bear dala uste dogu.

Orretarako, "ONDARRA" dauken itzak eta "ARETA" daukenak, nun erabilten diran jakin ezkerro, lagun-tasuna emongo dauskuetakoa gagoz geure zalantza ori ebatziteko.

* * *

ONDARRA daukenak:

- ONDARRIBIA, muga'ko erri bat.
- ONDARRETA, Donostia'ko ondartzat bat eta bere ingurua.
- ONDARROA, Bizkai'ko erri bat. Bertotarrak "ONDARRU" esaten dabe.
- ONDARRAZPIKO, izen onegaz, Ondarrun beñi-pein, ezagutzen daben arrain bat da.

* * *

AREA daukenak:

- AREATZA, Muxika'ko auzo bat.
- AREATZA, Arratia aldeko erri bat.

— ARETA, Laudio'ko auzo bat, orain erritxo bat bihurtuta.

* * *

Onegaz ikusten da, *lur ariñari* izena emoteko, geure antziñekoak izen bi erabilten ebezala. Ta, ba leiteke, izen bi orreik erakusten dabela, *lur arin* ori ez dala bardiña toki guztietan; au da, ITXAS ALDEKOA era batekoa ta ITXASOTIK URRIN dagoana beste era batekoa.

Ori dala-ta, geuk be bide orreri jarraitzen ba dautsagu, itxas aldekoari ONDARRA esango dautsagu ta AREA itxasotik aldentuta dagoanari.

Eta, onegaitik, itxas aldeko erriak, alderdiak eta abar, ONDARRA'ren sustraia eroango dabe ta, orduan, erderazko LAS ARENAS (Getxo'ko auzoa) ONDARRETA esango dogu euzkeraz itz egiten dogunean.

AREA berriz, itxasotik urrin dagozan erri ta alderdientzat itziko dogu.

Beraz, onelan egin ezkerro, euskerea aberastuko dogu, aitatu doguzan izen bi orreik gorde ta zaindu doguzelako.

Egileor'tar Jon

BETOS BERTSOLARI BARRIAK

"Basil" bertsolaria
joan da mundutik.
Minduta gagoz danok
biotz-biotzetik.
Olako gizon onak
badoaz lurretik,
nork lan egingo deusku
euskera aldetik?

Egoera txarrean
dago euskerea.
Ez dautsot aurkituten
ona itxurea.
Indartu daigun danok
geure izkerea;
izkuntza biztu daigun
bakoitzak berea.

Orregaitik nik diñot
tamalgarri dala,
euskeltzale diranak
ikus doazala.
au ikusi nai nuke:
Zintzo bat doala,
mutil pare ohea
agertu daitela.

Nik olan nabaitzen dot,
besteek bestera.
Baikor diranak uste
doala ohera.
Ni poztuko nintzake
balebil aurrera.
Baña bada-ezbada,
goazen lanera.

Eurak, bai, eiten dabe
lana egin ala.
Olantxe uste dabe
sendo dabillala,
baita be euskerea
Jaunak ein ebala,
eta orrexegaitik
Ark zainduko dauka.

Baña gai aundietan,
Jaunari oiuka,
baita be, eten barik,
lanean malluka.
Une historikoan
ein sendo burruka
t'ez ibil erostari,
iñoz, alaruka.

Matai Argintxona

BIKOITZAK

Naikoa ugariak dira gaur-egun, neba-arreben naiz seksu edo kuntze bardiñezkoen, neskatoen naiz mutikoen, agerpenak. Bein eta barriro egiten dogu topo olako gertakizunakaz.

Joan dan asteen neska gazte natek Bilbo'ko Lorategian ikusi nindun eta astiro-samar nigana urreraturik bat-batean itandu eustan: Ez nozu ezagutzen? Eta nik begirakadatxu bategaz bere aurpegia ikustaturik erantzun neutson:

— Ez zaiataz ezaguna, baiña itxuraz nire aspaldiko euskal-ikasle bat zara, Bilbo zarrean “Lanegi” deritxon Ikas-tetxeko nire ikasle bat.

Eta alan zan, baiña une aretan bere izen-abizeñak eta nortasun berezia ez neban gogoratzen.

Zortziren bat urte izango dira zugaz euskera ikasten beste lagun-mordotxu bategaz jardun nebala, esan eustan. Zugaz orduan egoniko “neskato bikoitza” naz. Zein polito ikasten genduan “Nora Zoaz” euskal gaztetxuen liburua eta bertako abesti politak, abesti ta kontakizunen bidez jolasten giñala! Asko ikasi neban, baiña gero batuaren kontuaz-eta... erri-aurreko eskoletan-eta... polito-polito ikasitakoa bertanbera itzi eta aitzu egin jat.

JOKABIDEAK

Bikoitzen jokabideak eta bizi-moduak geienetan bardiñak izaten dira: Berbetea, jolastea, solaz egitea, adatzaren margoa, goiberea ta abar.

Baiña bikoitzak be era bitakoak izan daitekez, eta au ez da gaurko aztergaia.

Egungo egunean, arlo onetan, azterketa eta ikertze ugariak egiten dira, bai notiñakaz eta bai abereekaz, osagi-leen eta olakoen aldetik.

Kondairearen urteen joan-etorrian eta errietako ele zarretan arbasoengandiko edesti aberatsakaz apainduta eta loratura bikoitz idaztiak agertzen dira. Oso ezaguna dogu, esaterako, Erroma'ren irasle izan ziran “Romulo ta Remo”-rena.

Ba-dira kondairan beste zertxu ankerragoak be. Inditarren artean, esaterako, bikoitzen jaiotzan lenengo jaioten zana Eguzkiaren seme lez bedeinkatua izaten zan, bigarrena, oster, sorginkerizko egite bat bide zala, eriotzara epaitua.

Aprika'ko leiñu batzuk bigarren jaioa bereala obiratu egiten eben, kalte nabarmenagoak alboratzearren.

JAKINTZA-BIDEETAN

Gaur, sorgin-kalte ta aztikeri oneik aienatu egin dira eta Ekografia izenezko jakintzari eskerrak, bikoitzen jaiotzak obeto zeaztu leikez.

Sarritan bi sortu izan arren, bat jaioten ei da.

Zenbakien goraberak begiratu ezker, jaioten diran berrogei umetatik bikoiz-pare batek baiño ez ei'dau ikusten eguzkiaren argia.

Eta beste ainbestek, ogeitik batek, ez dau gure lurra zapalduko. Erdiak amaren sabelean galduko dira, eta sortzetik amar aстера bitarteko aldian galdu be.

Jazokizun bakunak edesten dira.

Neskato batek bere sabel txikian ume-gai bat izan eban, zazpireun gramoko azta eukana eta jai ba'litz, bere nebea izango zana.

Agure bat il zanean, autopsia egin ei jakon eta bere erraietan iru kiloko umegai bat aurkitu eben. Agure onek bere bikoitz-gaia bizitza guztian aldean eroan eban.

Bikoitz batzuk umetatik banatuak izaten dira ba, naizta gero be alkarren antz aundia izan itxuraz eta jokabideetan, beste batzuk ez orrelan ikusi dogun lez.

Irukiak be izaten dira eta ezagutu doguz. Eta arazo guzti onetan odolaren jatorriak be zer-ikusia izaten dau.

Arregi'tar Josu'k

AITA LUKI, BERTSOLARI

Karmen'go Amak Bizkaia'n jai asko daukaz, eta santutegiak. Jaiak Santurtzi'n, Barakaldo'n, Balmaseda'n eta abar ospatzen dira aundikiro, aurtien egin diran lez. Santutegiak, barriz, praille ta monjenak, Markiña'n, Zaldibar'en, Durango'n, Zornotza'n, Getxo'n, Orduña'n, Begoña'n eta abar.

Emen, Larrea'n, beste urteetan baiño gar geiagoz ospatu dogula esan bear. Bederatzi-urrena egin zan leenengo, illaren zazpian asita. Goizero, sei t'erdietan, plaza erdian urtenda, Larraraiño, kilometro bat lez, Errosario santua kantatu ta erreztatuz etorten giñan Karmen'go elizara. Emen alkar-meza zazpi-zazpiretan. Julen Urkiza ondarrutar gazteak itzaldia, Andra Maria'ren bizitza ta birtuteak azaldu ta goretsiz. Gure elizeak ezin leitekean geiago artu.

Karmen'go Amaren egunean, oster, goiz-goizetik asi zan jentea etorri ta etorri, andik eta emendik, etenbako erreskadan, txiñurri-kate luze-luzea bai litzan. Mezak ugari goizeko sei t'erdietan asita. Eliz-aurreko zelai zabalean izan zan 12'tako alkar meza. Ez bero ez otz, giro ederra platanupe atsegiñean; gitxitan ikusi dan beste jente, gazte ta zaar, andrazko ta gizonezko; gizonezkoak batez be, astelena ta lan-eguna zanagaitik Larraratuak.

Karmen'go Amaren eguna zan. Baiña niri be omena egiten jatan: 50 urte ziran nik leenengo meza emon nebanetik. Egun au, beraz, jaitu egin bear zan, Jainkoari ta Karmen'go Amari eskerrak emonez eta aurrerantzerako be doe ta mesede barriak eskatuz Alkar mezan, ba, neuk egin neban erdiko, beste seik lagundurik. Mezatan errikantak. Berau astean, Azpillaga bertsolari sakon-leunak, beste urteetan letxe, bere ekinaldia egin eban, baita erriotoitzaetan eta azken-agurrean be. Meza-zuzendari, irakurle ta enparauak ondo. Itzaldia, Julen Urkiza'k. Gure Jaun-artze txit luzea. Neure azken-agurra ta kantak.

Ondoren, au be beste urteetan lez, jaiari berea emoteko, Zornotza'ko dantzari talde ospetsu "Udabarri"-k bere jarduna, ordu bete t'erdian. Umetxo, mutiko ta nagusiak oso egoki dantzatu zituen kontu-ezin-ala artazi, erreze eta gaitz, ango ta emengo. Jentea pozarren, ikusi ta txalotu. Eguzkia berotzen asi zan arren, barne-pozak edozer arinduten. Ordu bi t'erdia joanak ziran jentea bazkaltzeaz gogoratu zanean.

Lekaideen bazkaria.—Suur-luze baizen jakin-miñak izan oi gara-ta, ez dozu arrigarri egun orretan karmeldar prailleak zer modutako bazkaria egin eben jakin nai izatea. Ilera luze bitan zutunik, "Zein gozo tan eder dan / anaiak alkartu, / eta danok batera / Jainkoa goratu" abestu gendun leenengo.

Gero maikoari ekin geuntson. Jan-gale giñan; meza, itzaldi, kantu, autortegi, Jaun-emote ta gaiñetiko lan guztien ondoren, eta berandu, etzan arritzekoa. Danetariko zizka-mizka ta jan-zeeak, edari goxoakaz batera, laster amaitu jakuzan; olako egunetan oitura dogunez, makailloa gero; aragi pizkat, eta mai-azkenak, frutea, ijitu-besoa, akeita-txola... Txokorrik ez eban iñok erre. Or gure bazkaria.

Orren ostean, baiña, egiten ditugu geureak, bertsoz ta kantuz, soin ta arima, jaiari dagokion poza aitzen emonik. Bertsoz asi ta kantuz amaitu, ba-zan umore onik. Jaiak jai, esan oi dau euskaldunak. Eta guretzat, karmeldarrok dogun jairik eder ospetsuena izan. Beto, beraz, bertsoak be.

Meza barriko ezteguak zirala-ta Aita Luki'k ateratako aapaldi biziak Aita Julen Urkiza ondarrutarrak abestu euskuzan abots zoli gozatsuz. Eta argitaratzea merezi daben ezker, emen doaz, irakurle, zure atsegingarri.

"Jai aundi baten, emen, pozez alkarturik. Berrogeta amar urte mezadun dalarik gaur Aita Santiago zorunez beterik: eskertu da Jaunagaz biotz-biotzetik

Iru abade doguz, Santi mutikotan, Amoroto'n jardunak parroki lanetan: Dionisio jauna ogetaka urtetan, On Nazario lagun ta gero Iturran.

Amoro'n askotan karmeldar prailleak urte-zear jaietan egiten semoiak Anai leial batzuk be, eskale zoliak, ixuri oi ebezan euren izerdiak

Karmeldar azi onak frutu emon eben: Santi be umetxo zala Karmel'ez zaletzen. Larra'ko ikastetxera etorri zan ikasten, karmeldar su goritan aldiro indartzen.

Larra'ko bost urteak ezin Santi'k aitzu: irakasleak ainbat bear gogoratu. Batek erdi-erditik biotza zatitu... Guretzat santu zana eben fusilatu.

Mezadun egin arte beste urte batzuk ikasten euki eben karmeldar konbentuk: Markiña'k ta Gasteiz'ek Begoña'gaz iruk. Begoña'n "egin" zana ospatzen dogu guk.

Jauparien ekintzak aundiak benetan: mezea esan eta autortza lanetan, txakur-mutu izan barik egia aldarrikan, ikasbidea emon ona egiñetan.

Autor daidan, aurrera barik, Aita Luki karmeldarra, Bizkaia'n beintzat ondo ezagutua, antxiñatik dogula bertso-saioak egiña. Ba-ditu arnasa ta jasa bertsoak biritzeko.

Azi ta azitokiak zelakoak diran frutuak antzekoak agertuko bertan. Ainbeste eliz-gizon Amoroto'n zelan txikia izanda be aurki leitekezan.

Amazortzi millatik gora mezetatik, itzaldi ta azalpenak ez dauke neurrik. Kantabria ta Araba, Errioxa aldetik, Gipuzkoa'n, Bizkaia'n... zenbat tokitatik!

Jauparien lan ona gudan be bear zan, ta Santi prest ebillen euskal gudaketan; lanaren sari legez lau urte kartzeletan: jaupari lez jarraituz zintzo ta benetan.

Jaupari batek badau beste arazo bat. Arazo ori ongarririk betiko deritxat: "Idaztiak idatzi egiren bidetzat." Egillea ilda be, or gerokoentzat.

Eliz-ospakizunak norbere izkuntzan egitea egoki, bidezko, argitan euskaldunok euskeraz egin daikeguzan, euskerazko idaztiak bearrezko ziran.

Abade bearrari erantzunik zintzo, eliz-gizonen batzuk egin dabe asko. Lauen bat izan doguz Bizkaia'n puntako; oncin artean dogo Aita Santiago.

Berrogeta amar urte mezadun zarala. Gora Karmen'go Ama, Jainkoa leen dala! Mesede danakaitik eurai esker-ala: gerokoakaz geio poztu daizuzala".

Aita Onaindia

ABEREA ALKARTASUN BARRIAN (3)

Vaca (Ebertarrai, 9, 13)

Pues si la sangre de machos cabrios y de toros y la ceniza de *vaca* santifica con su aspersión a los contaminados...

Lei: Ezen baldin zezenén eta akerrén odolak, eta *bigáren* hauts barreyatuak, satsuak santifikatzen baditu haragiaren puritateaz den bezembatean...

Duv: Ezen baldin akher eta zezenen odolak eta *miga* hauts urzatuak, haragiaren garbipenetan sainduesten badiu khutsatuak direnak...

Ol: Alabaña, satsuak, akher eta zezenen odolez ta *txalen* errautsez zirpizinduta, aragitan garbi ta guren egiten ba'dira...

E-B: Zikiñak, akherren eta zekorren odolaz eta *beiaren* autsaz txipristinduta, aragi-garbiketarako santutu egiten ba'dira...

Cordero (Joan, 1, 29)

He ahí el *Cordero* de Dios que quita el pecado del mundo.

Lei: Huná Iainkoaren *Bildotsa* munduaren bekatutak kenzen dituen.

Duv: Huna Jainkoaren *bildotsa*, huna munduaren bekatua khentzen duena.

Ol: Orra, giza-ogena kentzen dun Yainkoaren *Bildotsa*.

E-B: Orra or Jaungoikoaren *Bildotsa*, munduaren pekatua kentzen dauana.

Oveja (Joan, 10, 12)

El buen pastor da la vida por sus ovejas.

Lei: Artzain onak bere bizia ezarten du bere *ardiak-gaitik*.

Duv: Artzain onak bere bizia emoten du bere *ardientzat*.

Ol: Artzain onak bere bizia bere *ardientzako* ematen du.

E-B: Artzain onak bere bizia *ardien* alde emoten dau.

Macho cabrio (Mateo, 25, 33)

Pondrá a las ovejas a su derecha y a los *cabritos* a su izquierda.

Lei: Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta *akerrak* bere ezkerrean.

Duv: Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta *akherrak* berriz ezkerretik.

Ol: Ta ardiak bere eskui aldean ipiñiko ditu; *akerrak*, ordea, ezkerrekoan.

E.B.: Ardiak bere eskumaldean jarriko dauz, eta *akerrak* bere ezkerrekaldean.

Cabrito (Lukas, 15, 29)

Pero nunca me has dado un *cabrito* para tener una fiesta con mis amigos.

Lei: Eta egundano *pitina* bat eztrautak eman neure adizkidekin atsegin hartzeko.

Duv: Eta behinere ez darotadazu *pittika* bat eman, ene adiskideekin egin dezadan besta.

Ol: Ta *antxume* bat ere ez didazu iñoiz eman, nere adiskideekin yolas artzeko.

E-B: Olan be, *antxume* bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko.

Puerco, cerdo (Lukas, 15, 16)

Y deseaba llenar su vientre con las algarrobas que comían los *puercos*.

Lei: Eta desir zuen *urdék* iaten zuten maginxetarik bere sabelaren bethatzera.

Duv: Eta han nahi zukeen sabela bethe *txerriek* jaten zituzten leketarik.

Ol: An, *txerriek* yaten zituzten txillekaz bete naita...

E-B: Eta *txarriak* jaten ebezan ezkurrez sabela bete gura eban.

Puerca, cerda (Pedro'ren 2.^a, 2, 22)

La *puerca* lavada se revuelca en el fango.

Lei: *Ahardi* ikuzia itzuli izan da istilera iraulzkatzera.

Duv: *Urdea*, garbitu ondoan itzuli da bere lohian ihauskatzera.

Ol: *Txerri* ikuzia, lokatzetara berriz.

E-B: *Txarri* *emea*, garbituta, barriro lokatzatan lorrintzen da.

Perro (Agerpena, 22, 15)

¡Fuera los *perros*, los hechiceros, los impuros, los asesinos, los idólatras y todo el que ame y practique la mentira!

Lei: Baina kampoan izanen dirade *orak*, eta pozoazaleak, eta paillartak, eta giza-erhaileak, eta idolatreak, eta nork-ere maite baitu eta egiten galseria.

Duv: Kamporat *zakhurak*, eta phozoindatzaileak, eta lohiak, eta gizon hiltzaileak, eta jainkoaizuntiarak, eta gezurra maite eta egiten duten guziak.

Ol: Utikan! *zakur*, sorgin, zantar, gizeraille, ta gezurra maite ta egiten duten guziak!

E-B: Utikan (kanpora) *txakur*, sorgin, zantar, gizailtzaille, irudigurtzaille, eta guzurra maite ta egiten daben guztiak!

Kerexeta

JAKINTZA

GOIRIA

Danen agoan dabil jakintza. Asko erabillitako gaia itzaldietan eta idaztietan. Beti ez zuzen. Sarritan oker. Garrantzi aundia emon jako gaur egunean jakintzari. Ainbeste ez antxiña. Antxiña aberastasuna bakarrik zala esan daiteke.

Asko zabaldu dira gaur bideak jakintzaren alde. Ain aberatsak ez diranak be aleginduko dira zelan edo alan euren seme-alabai adontasuna izan dagien ikastaroak emoten. Bier-etzi bizitzarako egiteko errezago izan jaken.

* * *

Gaur edozein da eskoladun. Mendi-gallurreko base-
rrian jaio ta bizi dana be bai. Len urte batzuk erriko esko-
lan eta kitu. Gero lan egin. Gaur otera gazteak trebetasu-
na erakusten ba'dau, erreztasun aundiak ditu ikastaroak
osotzeko. Eta berak gura dituanak.

Jakiña! ikastaroak osotuta be, jakintza-gallurra ez dau
iritxiko... jakintsu oso-osoa ez da izango, baiña gizon
argia, prestua, gizartean lenengo mailak lortzeko bai.

Agintariak-eta erreztasun aundiak damotsoez gaur
gazteari ikastaroak egin dagiazan. Bestetik jakintza-
zaletasun aundia oartzen da gazteen artean.

Gure Aberrian —Euzkadin— be aurrerapen aundia
ikusten da onetan gure gaztedian. Kirolak indar aundia
dauke gure errian eta gure gazteak trebetasuna ondo era-
kutsi izan dabe. Pelotan beti onenak.

Ostikoketan be punterengoenak agertu izan dira aspal-
ditik. Indarketan be oso ospetsuak izan dira beti euskeldu-
nak, adibidez, ukabilketan, arri-jasotzen, aiskoran, segala-
ritzan, grekorromanen, txirrindularitzan, oiñezko laster-
ketatan, itxaso-lasterketatan, soka-tiran, eta beste ainbeste
gauzetan.

* * *

Erriaren onerako baiña ezer ez jakintza bezalakorik
eta gaur ba-doguz gure Aberrian Ikastetxe ederrak eta
ugari ta millak eta millak gazte eureten ikastaroak egiten.
Eta zorionez ainbat ikastaro egiten da gaur gure izkuntza,
euskeran.

Zabadu dagiogun bidea gure errian jakintzari Joven-
llosek esan ebanez ba “jakintza gizonaren pitxirik joriena
da”.

Antziñako kondaira SENARRA TA NI BAT GARA

Busturi alden, erri batean,
Agerre baserria zan.
Baserri ortan familiak bi,
erdi bana, bizi ziran.
Batek soloko mugak aldatu
ta etziran bizi bakean.
Testiguakin, asarre biziz,
ebiltzazan konponketan.

Pelis-Matxalen, senar emazte,
ziran alkar maitaleak.
Alan ta guzti, euren errian,
suerte txarra eukenak.
Beti on eiten, danai laguntzen
ta alboko batek minduak.
Gizonak biak, au origaitik,
ai! geratu ziran illak.

Muga arriak zirala eta,
sortu yaken asarrea.
Batak ipiñi, besteak kendu,
muga zan eztabaidea.
Pelis ta Jose, amorruez betez,
asi eben burrukea:
batak bestea atxurra jo-ta,
emontson eriotzea.

Azken batean Pelisek Jose
itzi eban lurran illa.
Laster deiturik, arin-aringa,
eldu zan Guarda Zibilla.
Gernikan preso sartu zan Pelis
t'emaztea bere billa.
Matxalen “piña” a ikus nairik,
emen, or eta an dabilla.

Auxe esana berak iñona:
“Senarra ta ni bat gara;
a espetxean ba dau loturik,
ni, bardin, noa bertara”.
Epaitzen euken, eta Matxalen
aringa epaitokira.
Urkamendira Pelis daroe?
Orain be senar ondora.

Pelis gaixua, errubakoa,
il ta lurperatu eben.
Orain Matxalen aitzu da beraz?
Ez orixe. Il nai dau len.
Kampo santuan, egun erdia,
egiten dau erreztatzen.
Au ezkonduen jarraibidea!
Emazte ona Matxalen!!

Matai Argintxona

BIBLIAKO "QUERCUS", ARTEA ALA ARETXA?

Bibliako Alkartasun Zaarrean zugatzetarik sarrien agertzen dana, latinezko "quercus" da. Ogei ta bederatzia aldiz beintzat bai; geiagotan be bai, urrean. Alkartasun Barrian ez dator bein be.

Antxiñako latinez, "quercus" itzak *aretxa* adierazoten ei-dau beti, J. Garate jaunak diñoanez.

Artea "quercus ilex" da, eta aretxa "quercus robur = quercus pedunculata", "quercus sessiliflora" eta beste mota batzuk.

Baiña, "quercus" bakarrik izentatu ezker, zelan jakin *arte*a ala *aretxa* dan? Eurok dagozan tokira joan bear, *in situ* ikusi eta *de visu* ezagutu bear. Euskaldunok *arte*a ta *aretxa* bereizten o do dakigu (ez ainbeste uriburuetan bizi diranak). Azkue'ren Iztegia prantsezaseratu ebanak, ostera, ez ebazan bereiztu: *arte* = encina, cohène; *aritz* = roble, chène. Baiña chène, aretxa da, eta chène vert edo Yeuse, *arte*a. Eta gauza bakana: Azkue'k ez dakar bizkaierazko *areitz* (bai, orraitino, L. Mitxelena'k, "Apellidos Vascos", 44 orri.), eta *aretx* itzean "Variante de *areitz*" dala diño. Bizkaieraz *areitz* dana, ainbat abizenetan agertzen da: Areiz, Areiza, Areizabal, Areizabaleta, Areizaga, Areizalde, Areizederra, Areizeta, Areizkorreta, Areiznabar, Areiznagañeta, Areizti. Jakiña, *areitz* + a = *aretxa* da bizkaieraz, *aitz* - atxa, *arkaitz* - arkatxa, *bakoitz* - bakotxa, *gaitz* - gatxa, *boskoitz* - boskotxa (ruda), *urreitz* - urretxa (avellano) diranez.

Erderazko itzulpenetan, geien-geienetan *encina* jarten dabe, a *arte*a be *areitz*-arteko da-ta, Ricardo Muro'k diñoanez ("El Acervo forestal", 22 orri.): "También es roble la encina (arte)". Baiña *arte*a ez da berez *areitz*, *areitz*-famiakoa baiño, *ametz*a = melojo edo roble negro (Lakoizketa) edo quejigo (Van Eys), *artelatza* = alcornoque (Lakoizketa), *pago*a eta *gaztaiña* diranez.

Orregaitik, Justo Garate jakintsuak bere liburu baten (1), 161'garren orrialdean, Biblian agertzen diran "quercus" guztiak *aretxak* dirala diño, eta ez *arteak*. Itzultzaileak onetan uts egiten ei-dabe sarritan, *aretxa* jarri bearrean *arte*a jarriaz. Adibide asko dakaz. "La encina de Guernica" irakurri neban oraintsuko liburu baten. Eta orrelaxe deritzoe Tirso de Molina'k, Jovellanos'ek eta Salvador Madariaga'k be. Eta Valle Inclán'ek "encina foral" eta "roble foral", bietara. Gaztelarazko iztegiak be ez datoz onetan obeto: esaterako, "Enciclopedia Universal Herder"-ek (1958) olantxe dakar: "Roble. Arbol cupulifero, de hojas perennes". Orixe berori dakar "El Diccionario Manual e Ilustrado de la Lengua Española"-k be. Itxuraz, espainar akademikoak be utz egiteko eskubidea dabe.

Emen, ba, ezbaia berba ori euskeratzerakoan. Neuk be, erderazko itzulpenai jarraitzearen, *aretxa* jarri bea-

rreran, geienetan *arte*a jarri neban "Euskal-Biblia"-n (bostetan izan ezik). Oker jarri be, J. Garate'ren eritziz. "La Bible de Jérusalem"-go (1975) chène guztiak be *encina* biurtu ebezan gaztelarazkoan. "Sociedades Biblicas Unidas"-en gaztelazko Bibliak be (1957) geienetan *encina* dakar, bostetan izan ezik. Duvoisin'ek, ostera bere "Bible Saindua"-n, Vulgata'ko "quercus" eta *chène* guztiak —birritan izan ezik—, haritz.

Nazaret'en (Israel) bizi dan Kepa Uriarte Aita prantziskotarrak auxe idatzi daust 1984-VI-26'an: "*Arteak* edonun ikusten dira. *Aretxik* ez da asko ikusten. Geienak *arteak* dira". Beraz, orain argi geiago daukagu —J. Garate'ren kaltetan—, baiña auzia guztiz ebatzi bagarik gertzen da. Leen esan danez, *in situ* ikusi bear Bibliako toki bakotxean *aretxak* ala *arteak* diran. Bi milla urteen bitartean, barriz, aldakuntza andiak egin daitezke, azken-eun urteotan Bizkai-Gipuzkoa'n egin diranez: gure txikitako arezti, pagadi ta gaztaiñadiak piñudi biurtu dira. Nonbaiten diñodanez (*Bitargi*, "Aizkora-otsak"):

Erasten diardue
mendiko pagoak,
gizaldietan zutik
egozan enborrak.

Areitzak eta urkiak
or doaz lurrera,
ta eurakin daroe
geriza ozpera.

Izan be, tamalez, sarritan obariak ez dabe parkatzen.

Edozela be, Bibliako berboi begiratu bat emotea oso interesgarria izango litzakeala uste dot. Emen ba, non agertzen diran eta itzultzaileak emon eutseen izena.

(B.J = Biblia de Jerusalén; N-C = Nácar-Colunga; Sch = A. Schökel; Duv = Duvoisin; Ol = Olabide; E-B = Euskal-Biblia.)

Asiera 12, 6 encina (B.J); encinar (N-C eta Sch); haran (Duv): Vulgata'k *convallis* itza dakar; artadi (Ol eta E-B).

Asiera 13, 18: aurrekoan lez.

Asiera 14, 13: aurrekoan lez.

Asiera 18, 1: aurrekoan lez.

Asiera 35, 4: encina (B.J, N-C eta Sch); tirrimintondo (Duv): *tirrimintin* (BN-Aldude, L): trementina = resina de coníferas; -ondo: planta de árbol, sagarrondoa, pikondoa, intxaurrendoa ta abar esaten doguzanez. Geroago, Isaias 6, 13, *tirrimintin-ondoa* jarriko dau. Aritz (E-B).

Asiera 35, 8 (birritan): encina (B.J, B-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Deuteronomio 11, 30: encina (B.J eta Such); encinar (N-C); haran (Duv); arte (Ol eta E-B).

Josue 24, 26: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Ebazleak 4, 11: encina (B.J eta Sch); encinar (N-C); haran (Duv); artadi (Ol); arte (E-B).

Ebazleak 6, 19: terebinto (B.J eta N-C); encina (Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Ebazleak 9, 6: aurrekoan lez.

Ebazleak 9, 37: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); zelai (Ol); arte (E-B).

Samuel'en 1.^a, 10, 3: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); Elon-Tabor (Ol); arte (E-B).

Samuel'en 2.^a, 18, 9 ta 10 (iru aldiz): encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Kroniketako 1.^a, 10, 12: tamarindo (B.J); encina (N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol); ametz (E-B) (= melojo, variedad del roble, naiz carballo, quejigo).

Isaias 1, 29: encina (B.J eta Sch); terebinto (N-C); Duv.'ek ez dakar; bakadi (Ol): berak diñoanez (2171 orri.), "baka, ebertainen itza; zuaitz baten izena"; areitz (E-B).

Isaias 1, 30: seréis como *encina* que se le cae la hoja (B.J); serán como *terebinto* despojado de su follaje (N-C); serán (ustedes) como una *encina* de hojas secas (Sch); hostoak erortzen zaizkon *haritza* bezala (Duv); orriuldu-tako *baka* geldituko bait-zerate (Ol); *areitz*-orri igarra lez geratuko zaree (E-B). *Arteari* ez yakoz neguan orriak jausten, zugatza zuzterretik galtzen ez ba'da beintzat. Esanaldi onen esanai zeatza jakin bear, ala be.

Isaias 2, 13: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); artelaz (Ol) (= alcornoque); areitz (E-B).

Isaias 67, 13: la encina o el roble (B.J eta Sch); la encina o el teberinto (N-C); tirrimintin-ondoa eta haritza (Duv); izai (= abeto, pinabete) ta arte-enborra (Ol); aretxa ta artea (E-B).

Isaias 44, 14: un roble o un encina (B.J, N-C eta Sch); artea eta haritza (Duv); arte ta areitzak (Ol); arte ta aretxak (E-B).

Isaias 57, 5: terebinto (B.J eta N-C); roble (Sch); Duv.'ek ez dakar; bakadi (Ol); areitz (E-B).

Ezekiel 6, 13: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Ezekiel 27, 6: encina (B.J eta N-C); roble (Sch); haritz (Duv); arte (Ol); areitz (E-B): "zure arraunak Basan'go areitzakaz egin ebezan". Ain zuzen be, *aretxa* zan itsas-ontziak egiteko geien balio eban zula (zura).

Daniel 13, 58: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Oseas 4, 13: encina, chopo, terebinto (B.J); encina, álamo, terebinto (N-C eta Sch); haritz, zurtxuri, tirrimintin (Duv); arte, lertxun (= tiemblo), zumar (= olmo) (Ol); arte, lertxun, ostazuri (= mostajo, naiz chopo blanco) (E-B).

Amos 2, 9: encina (B.J, N-C eta Sch); haritz (Duv); arte (Ol eta E-B).

Kerexeta

(1) "Cultura Biológica y Arte de Traducir". Editorial Vasca Ekin. Buenos Aires, 1943.

IPUINAK APAINTZEKO MARGOZKIEN SARIKETEAK

*"Euskerazaleak Alkartea"*k, euskaldunen artean apainketarako marrazkiak egiteko zaletasun aundirik ez dagoala ikusirik, margolarien edo lan onetarako zaleak diranen artean sariak egitea asmau dau.

Euskerazaleak Alkartearen Etxean (Colón de Larreategi 14, 2.^a, eskoia) ikusi daitezke marrazkiak argitaratu nai diran ipuiñak txorta baten. Ipuin oneik argitaratzeko liburuaren azala eta barruko apaingarriak marraztuko dauzan ertilaria edo orretarako zaletasuna daukana billatzen da.

Marrazkiak berak asmau bearke dau marrazkien neurria, margoak, zenbakia ta dana, ipuin bakoitxarentzat bat, naiz bi, naiz iru izan dautekezala, neurria zelakoa dan.

OINARRI-ARAUAK

1. Marrazkiak, 1985'ko urterilaren 31'rako, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean izan bearke dabe.
2. Marrazkiak izen ordeaz ezaugarrituko dira eta karta-azal baten barruan ekarri bearke da ezaugarri dan izen-orde ori eta benetakoz izena ta zuzenbidea.
3. Saria bat bakarra izango da, 100.000 pezetakoa.
4. Saridun marrazkiaren jabe EUSKERAZALEAK ALKARTEA geratuko da.
5. Ipuiñak euskal-girokoak diran ezkerreko, marrazkiak be giro orretakoak izan bearke dabe.
6. Saria irabazteko gai dan lanik bat be agertu ezik, iñori emon barik geratuko da saria eta aurkeztu diran lanak jabeen esku geratuko dira.
7. Epai-Maiaren erabagia 1985'eko zezeillaren barruan agertuko da DEIA Izparringian eta ZER aldizkarian.

EUSKERAZALEAK

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.